

hh
hik hasi

Mary Burnsi elkarrizketa
'Ikaslagun' egitasmoa Zarautzen
Etorkinen integrazioan laguntzeko abestia
Euskal kulturaren transmisioa
Kidekoen arteko ikaskuntza
Skoobi plataforma
Pantxix Bidart



20 urte elkarrengandik ikasten

UDAKO TOPAKETAK



NEREN ARBURUA PLAZA • JULEN TOKERO ILLARRIZ

ELKAR MAITE DUTE, FAMILIAK OSATZEN DITUZTE



elkar irakurpena

AURKIBIDEA

GAIA / 10

UDAKO TOPAKETEK 20 URTE

Hik Hasi Udako Topaketek 20 urte betetzen dituzte aurten. Urteurrena baliatuta, bi hamarkadetako errespaso bat egiten da aldizkari honetako gai nagusian. Topaketen sorreraren arrazoiekin batera, beroien zutarri nagusi izan diren ezaugarriak gogoratzen dira. Eta ere berean, EHUren lankidetzari buruzko testigantza ematen dute Felix Basurkok eta Joxe Garmendiak.

ELKARRIZKETA / 18

MARY BURNS

Mary Burns irakasleen formakuntzan aditua Donostian izan zen Euskal Wikilarien Kultur Elkarteak gonbidatutako kongresuan. Irakasleen formazioan aditu gisa, formakuntzaren alderdi praktikoak duen garrantzia azpimarratzen du. Hori dela eta, irakaskuntza sakona defendatzeko du, modu horretara irakasleek ikasitakoa esperimendatzeko aukera dutelako.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-06-14).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Teoria, praktika eta hausnarketarekin osatutako udako koktela

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Udako Topaketek 20 urte

18 ELKARRIZKETA

MARY BURNS

“Uste dut denbora gehiago pasatzen dugula atletekin gaitasunak lantzen irakasleekin baino”

26 ESPERIENTZIAK

‘Ikaslagun’ egitasmoa

30 EKARPENAK 1

‘Zorion bat, zorion bi’ urtebetetze abestia etorkinentzat

30 EKARPENAK 2

Euskal kulturaren transmisioa

36 GALDEIDAZU

DAVID DURÁN

Nola jar daitezke praktikan kidekoen arteko irakaskuntza eta kidekoen arteko tutoretza?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Skoobi plataforma

42 ATZEKO ATETIK

Pantxix Bidart

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta
lana euskaraz



Teoria, praktika eta hausnarketarekin osatutako udako koktela

editoriala

UDA SASOIAK ESKATZEN DUELAKO ETA PROFESIONALEN BEHARREK ERE BAI, UDAKO TOPAKETETAKO IKASTAROETAN ALDERDI PRAKTIKOAK ETA HAUSNARKETAK PISU BEREZIA HARTZEN DUTE.

Aurten 20. aldiz elkartuko gara Donostian Hik Hasiren Udako Topaketetan. EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultateko bi eraikinak beteko dira, 550 lagunetik gora bertaratuko baitira. Kopuruak dimentsio handia ematen dio, eta are gehiago jendearen gogoak eta berotasunak. Ikasturtea bukatzeaz eta uda has-teaz, batetik besterako salto horretan kokatzen dira Udako Topaketak. Horrexegatik, agian, ezin dute izan ikasturteko gainerako formazio saioak bezalakoak. Badute zerbait desberdina, beste kutsu bat, beste ukitu bat.

Ukitu horietako bat ikastaroen praktikotasunak ematen die. Ikastaro teoriko-praktikoak dira. Hau da, alderdi praktikoak pisu handia hartzen du. Ikastaroa eskaintzen dutenek hasiera-hasieratik azpimarratzen dute ezaugarri hori, eta horren adibide da arropa eroso eramateko eskatzen dutela. Yoga, mindfulness, musika, eskulanak, garapen pertsonala, adimen emozionala, jolas terapeutikoa, psikomotrizitatea, antzerkia eta abar luze bat. Papera eta boligrafoarekin batera, azalpen teorikoekin batera,



entzundakoa praktikan jartzeko abagunea eskaintzen da ikastaroetan. Eta asko baloratzen da. Aldizkari honetako elkarrizketa nagusian Mary Burns irakasleen formazioan adituak ere horixe azpimarratzen du: “Hitzaldiak onak dira, baina irakasleek gehiago behar dute. Informazioa jaso ondoren edo eredu baten berri izan ondoren, praktikan jarri behar dute”. Praktikan jartze horri garrantzi handia ematen dio, bizipenari, alegia. “Uste dut denbora gehiago pasatzen dugula atletekin gaitasunak lantzen irakasleekin baino” gehitzen du. Horregatik dio irakasleen prestakuntzan denbora inbertitu behar dela, eta inbertsio hori alderdi praktikoan egitea aldarrikatzen du.

Aipatutako guztiarekin batera, hausnarketa dago. Elkarrekin praktikan jarritakoa behatu eta ondoren elkarrekin hausnartzea garrantzitsua da. Egindakoa ikustea, errakuntzetatik ikastea eta aurrera egitea. Bai modu pertsonalean eta bai taldean. Dena baita beharrezkoa eguneroko jardunean hobekuntzak egiteko. Balio bezate Udako Topaketek bide horretan lagungarri izateko.

“Araututako hezkuntza propio bat garatu nahi badugu, kompetentzia politikoez gain gogoeta propioa ere behar dugu: zein da nahi dugun hezkuntza sistema eta zein berezitasun izango ditu?”

Mariam Bilbatua



LAPURDIKO, NAFARROA BEHEREKO ETA ZUBEROAKO IKASLEEK EZIN IZAN DUTE BAXOA EUSKARAZ EGIN

Urteroko moduan, protesta egin dute Seaskako ikasleek Baxoa egin aurretik. Dozenaka ikasle bildu ziren Baionako Bernat Etxepare lizeoan. Unibertsitatera joateko azterketa hori egin beharra dute, eta ezin dituzte proba gehienak euskaraz egin. Horregatik, aurten ere ikasketak egin ez dituzten hizkuntzan egin behar izan dute azterketa. Bi proba egin ditzakete euskaraz: Geografia-Historia eta Matematika. Seaskak ohartarazi du “borondate politikoa” falta dela gainerakoak ere euskaraz egiteko. Brebetaren azterketarekin ere gauza bera gertatzen da.

IKASTETXEEN ALDEKO EKAINEN JAIK OSPATU DIRA

Jendetsuak izan dira ikasturte amaierako Euskal Herri mailako jai nagusiak: Armentiako ikastolak antolatutako Araba Euskaraz, Aginagako eskola txikiak prestatutako Eskola Txikien eguna eta EHIGE eta Errenteriako Koldo Mitxelena ikastetxeko gurasoek antolatutako Euskal Eskola Publikoaren jaiak. Datorren urterako lekukoak ere eman dituzte: Amurrioko Aresketa ikastolak, Aizarnako eskola txikiak eta Bastidako eskolak antolatuko dituzte jaiak hurrenez hurren.

DBH-KO IKASLEEN EUSKARA GAITASUNA AZTERTU DA NAFARROAN

Nafarroan DBHko ikasleek duten euskara gaitasuna aztertu dute Nafarroako hiru erakundeek: Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak, NUPek eta Berriozarko Udalak. Gazte txoek euskararekiko duten atxikimendua izan dute aztergai. Askok euskaraz egiteko nahia eta ezina dutela azpimarratu dute; gaitasun nahikorik ez dutela. Eta horri motibazio eskasa gehitu behar zaio.

ADIMEN-GAITASUN HANDIKO IKASLEENTZAKO ARRETA PLANA AURKEZTU DA

Eusko Jaurlaritzako Cristina Uriarteko Hezkuntza sailburuak eta Maite Alonso sailburuordeak aurkeztu berri dute adimen-gaitasun handiko ikasleak garaiz atzemateko plana. Ikasle horiei behar duten hezkuntza arreta ematea da planaren helburua.

Gaur egun, OME Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, adimen-gaitasun handia daukate ikasleen % 3 inguruk. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, aldiz, oinarritzko hezkuntzako ikasle guztien % 0,2 inguru daude zenbatuta. Azken urteetan, ordea, hirukoiztu egin da gaitasun handiko gisa identifikatutako ikasleen kopurua. OMEk egindako estimaziotik urrun dago oraindik ere, eta planarekin identifikazioa findu nahi dute. Prozedura osoa “sistemizatutako” dute. Ikasle horien garapena eta lorpenak “askotarikoak” izan daitezke pluraltasunaren ondorioz, eta horren arabera diseinatu dute egitasmoa. Eraikita dauden zenbait mito eraisteko xedea ere badu planak. Esate baterako, “kaltegarria da esatea supergaitasunik ez duten beste ikasle batzuen premiak handiagoak direla eta lehentasuna haien eman behar zaiela, edo gaitasun handiko ikasleen premiei arreta eskaintzeak gutxiagotasun sentimendua sor lezakeela gainerako ikasleengan” Hezkuntza Sailaren arabera. Hezkuntza komunitatea sentibilizatzea eta informatuta egotea da hori saihesteko modu bat.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HASI DA IRUÑEAN SKOLAE HEZKIDETZA PROGRAMAREN AURKAKO EPAIKETA



Ikasturte amaierarekin batera hasi da Nafarroako Auzitegi Nagusian Skolae hezkidetza programaren aurkako epaiketa. Auzitegi Nagusiak deklaratzera deitu zituen programan aritu diren hainbat profesional: egitasmoa taxutu zuten adituak eta irakasleak trebatzen ari diren beste bost lagun. Epaiaketaren lehen egunean deklaratu zuten Marian Moreno eta Carmen Ruiz programaren egileek eta Jabi Arakama eta Zaloa Basabe irakasleak trebatzeko tutoreek. Iruñeko San Cenin ikastetxearen akusazioak eraman zituen epaitegietara. Concapa elkarteak ere salaketa jarri du, eta programari buruzko azalpenak epaitegian jaso nahi baititu. Eta horiez gain, 18M plataforma ere akusazioen parte da.

Akusatuek argi eta garbi adierazi dute Skolae hezkidetza programa bat dela eta helburua ezberdinenganako errespetua izatea dela. Carmen Moreno soziologoak adierazi zuen haurtzarotik hasi behar dela lantzen errespetu hori lortzeko. Marian Moreno genero indarkeriaren prebentzioan aditu eta irakasleak adierazi zuen beretzat “irakaslea gisa, egia bilakatutako ametsa” dela Skolae. “Eduki serioak eta oso onak ditu eta egungo Berdintasunaren Legeak betetzen ditu”. Zaloa Basabe eta Jabi Arakama trebatzaileek azpimarratu zuten ez dutela inolako kexarik jaso Skolaeren inguruan; kontrakoa, “zorianak” eman dizkietela bai edukiagatik eta bai programak eskola bakoitzera egokitze duen egokitasunarengatik ere.

Epaiketa hasi baino ordu erdi lehenago elkarreratzea egin zen CCOO, CGT, ELA, Esk, LAB eta Steilas sindikatuek deituta *Berdintasuna ez da hautazkoa* lelopean. Sindikatu guztiek onartutako adierazpen bateratua irakurri zuten epaitegiaren aurrealdean eta Skolaeren aurka bultzatzen ari diren jazarpena amaitzeko eskatu zuten. Nafarroako Gobernu berriari Skolaerekin jarraitzeko eskatu zioten.

HEZKIDETZARAKO II. PLANA AURKEZTU DU LEGEBILTZARRERAN HEZKUNTZA SAILBURUAK

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak legebiltzarreko kideen aurrean aurkeztu du Hezkidetzarako II. Plana. 2013an jarri zen abian lehendabizikoa eta haren jarraipena izango da bigarrena. Aurrenekoaren helburua izan zen ikastetxeetan berdintasunarekin lotutako egiturak sortzea eta oinarritzko trebakuntza ematea. Orain arte, zentroen % 87k izendatu du hezkidetza arduradun bat eta irakasleen % 60k jaso dute hamar orduko formakuntza modulua.

Orain, bigarren planarekin ikastetxeen kulturaren eragitea da xedea: genero ikuspegia eguneroko jardunean txertatzea, bai zeharka, curriculumetan edota dokumentazioan, bai berariaz, hezkidetza proiektuen bidez. Horrekin batera, lehentasunen artean aipatu zuen indarkeria matxista prebenitzeko eta garaiz antzemateko tresnak abian jartzea.

Orain arte langileei emandako trebakuntza familietara ere hedatu nahi dute, hezkuntza komunitate osoak formakuntza izango duela bermatzeko. Horrekin batera, ikastetxeetan sortu diren ardurak eta egiturak koordinatzeko premia ere nabarmendu zuen.

Plan honekin lotuta, eskola inklusi-boa garatzeko lehen plana ere aipatu zuen Cristina Uriarte sailburuak. Bate-tik, “bizikidetza positiboa” xede duen plana da; eta bestetik, ikasleen egoera sozialak, ekonomikoak eta erlijiosoak eragin ditzaketen oztupoak gaitzitea.



PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALEKO IKASTAROA ESKAINIKO DU MAGALEAN-EK 2019KO UDAZKENEAN

Magalean-ek harreman psikomotrizitateko espezialista izateko bi urteko formazioa eskainiko du 2019ko irailetik hasita. Formazio pertsonala, teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu eta Hezkuntza Sailburutzak homologatutako pres-takuntza da. Bereziki 0-6 urteko haurrekin aritzen diren profesionali zuzendua dago.

Donostian egingo da formazioa eta lekuak mugatuak dira. Informazio gehiagorako eta izena emateko: psicomotricidadrelacion@gmail.com helbidetara idatzi daiteke edota 607 70 48 37 (Arantxa) eta 610 24 78 88 (Sonsoles) telefonoa zenbakietara deitu.

ORAINDIK IZENA EMAN DAITEKE HAUR HEZKUNTZAKO FORMAZIOAN

Haur Hezkuntzako profesionalen pres-takuntzan sakontzeko asmoz, haur txikiekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzendutako bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasi-k, zazpigarrenez. Oraindik ere plaza batzuk geratzen dira eta izena eman daiteke hikhasi.eus webgunean.

HAUR HEZKUNTZAKO hezitzaileentzat formazioa (7. promozioa) *plaza batzuk geratzen dira oraindik*


- 1. ikasturtea - 2019-2020 (0-3 aldiz) **EMMI PILGER** pediatraren dinarri teorikoa izango da jarraituko den ilde pedagogikoa nagusia: **ZABRETA, MUGIMENDU ASKEA, LOA, PERDEL ALDARETA, JATOROIAK, SOZIALIZAZIOA**, eta abar landuko dira.
- 2. ikasturtea - 2020-2021 (0-6 aldiz) Hainbat pedagogia hezitzaile eta eraklitzzaile ezagutuak dira: **LORENZ MALACUZZI** eta Reggio Emilia, **HUDOLF STEINER** eta Waldorf eskola, **MARIA MONTESSORI**, Pedagogia Sistemikoa, Heziketa berdea, **REBECA** eta **MAURICIO WILD**,...
- Bi ikasturteetako edukiak praktika psikomotorrean dinamizuko **FORMAZIO PERTSONALA**arekin uztartuko da.

(Bi ikasturteetarako edo hainbat ikasturteetako biak oinarri gisa hartuko dira.)

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus helbidean

HIZPIDE IZANGO DA

'EUSKAL HERRIAN ERREFERENTE DIREN PEDAGOGOAK' LIBURUA ARGITARATU DU HIK HASI-K



Kalean da Hik Hasik argitaratutako azken liburua: *Euskal Herrian erreferente diren pedagogoak*. Euskal Herriko ikastetxeetako eguneroko jardunean eragina duten 25 autoreren —pedagogoak, psikologoak, maisu-maistrak...— berri jasotzen da liburuan. Hezkuntzaren historian eragina izan duten eta uneotan ere ekarpenak egiten ari diren autoreen ideia nagusiak biltzen dira bertan. Aniztasuna da nagusi autoreen artean, garai, toki, ildo pedagogiko... ezberdinetakoak baitira. Euskal Herriko lau agertzen dira: Maria Maeztu, Elvira Zipitria, Imanol Urbietta eta Ramon Flecha. Gainerakoak eta haien eragina, berriz, nabarmena izan da Euskal Herriko hezkuntza arloan eta hainbat ikastetxetan. Aniztasunak aniztasun, irizpide nagusi bat hartu da iparrorratz beroiek hautatzean: Euskal Herriko ikastetxeetan momentu honetan egiten ari diren praktika pedagogikoan eragina izatea, kontzienteki edo inkontzienteki, inplizituki edo esplizituki, zuzenean edo zeharka...

Aipatuako lauez gain, hauek dira gainerakoak: Francesc Ferrer i Guardia, John Dewey, Rudolf Steiner, Maria Montessori, Ovide-Jean Decroly, Alexander S. Neill, Jean Piaget, Célestin Freinet, Lev Semionovitch Vigostki, Wilhelm Reich, Emmi Pikler, Loris Malaguzzi, Paulo Freire, Ivan Illitx, Bernard Aucouturier, Rebeca eta Mauricio Wild, Francesco Tonucci, Howard Gardner, Daniel Goleman, Algélica Olvera eta Heike Freire.

Liburua ekainaren 18an aurkeztu zen Donostian eta salgai dago www.hikhasi.eus webgunean nahiz hainbat dendatan.

HIK HASI ETA EMAUS-EN PROIEKTUA UEU-N AURKEZTUKO DA

Uztailaren 9an UEUren Udako Ikastaroen barnean Hik Hasik eta Emaus Gizarte Fundazioak elkarlanean martxan jarritako egitasmo baten berri emango dute: eskoletan materialak berrerabiltzeko egin duten proiektu pilotua.

Maiatzean eta ekainean Euskal Herriko 14 ikastetxetan material berrerabiliak probatzeko proiektu pilotua egin da. Eskoletan berrerabilpenaren txokoa prestatu dute eta material horiekin hainbat jarduera egin dituzte ikasleek, modu librean zein gidatuan. Esperientzia horien berri emango da Eibarren izango den ikastaroan.

Horrekin batera, beste bi proiekturen berri ere emango da ikastaro berean: Aretxabaletako Gu Haziak Gara eta Costa Ricako GuanaRed elkarteena. Informazio gehiagorako jo www.ueu.eus-era.

PEDAGOGIA SISTEMIKOKO MASTERRA 2019-2020RAKO

Euskal Herriko Pedagogia Sistemikoaren Eskolak 5. urtez eskainiko du Pedagogia Sistemikoko masterra euskaraz. Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan egingo dira saioak hilean behin. Informazio gehiagorako eta matrikula egiteko www.pedagogiasistemikoa.eus webgunera jo daiteke.



20 urte bete dituzte aurten Hik Hasiren Udako Topaketek. Bi hamarkada igaro dira 2000ko uztailea hartatik. Ikastaroz, profesionalez, ekitaldiz, hausnarketez, emozioz eta sentsazioz betetako 20 urte. Badira aldatu diren gauzak, ohiturak eta egiteko moduak. Beharren arabera, landu diren gaiak ere berrituz eta eskaintza aberastuz joan da. Baina era berean, Hik Hasiren Udako Topaketen zutarri izan diren ezaugarriek hor darraite, besteak beste, eskaintza berritzailea egitea eta euskaraz izatea eta topagune bat eskaintzea.

GAIA: UDAKO TOPAKETAK

20 urte elkarrengandik ikasten

Aurretik Hik Hasi Egitasmo Pedagogikoa markatzen ari zen ildoari jarraituz sortu ziren Udako Topaketak. Bost urte lehenago, 1995ean, argitaratu zen *hik hasi* aldizkariaren lehen zenbakia. Data hori baino 100 urte lehenago hainbat pedagogo eta aditu hasiak zeuden eskola berriaz, modernoaz edota pedagogia kritikoaz hausnartzen, hitz egiten eta idazten. Eskola tradizionalaren aurrean beste eredu bat aldarrikatzen zuten (eta aldarrikatzen da oraindik ere). Haien oihartzunak Euskal Herrira ere iritsi ziren eta ildo horretan kokatu zen Hik Hasi egitasmo pedagogikoa.

Hasieran aldizkaria zen ildo berritzaile horiek Euskal Herrian zabaltzeko tresna. “Baina beharrak bide berriak jorratzera eraman gintuen” gogoratzen du Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko kide eta Udako Topaketen koordinatzaileak. “Hasiera-hasieratik egon gara jendeak dioenari adi, irakaskuntzan dabilzanek zein behar dituen galdezka, dauden hutsuneak detektatzen, eta horrek proiektu eta zeregin berriak ekarri dizkigu. Hala, lehendabiziko ikasurtean bertan jardunaldi bat antolatu genuen; irakurketa-idazketa konstruktibistari buruzkoa. Izugarritzko erantzuna izan zuen eta hurrengo urteetan jardunaldi gehiago etorri ziren: marrazketa librearen gainekoa, balioei buruzkoa, telebistari buruzkoa...”.

Jendea gose zen. Hori antzematen zen. Beraz, jaten eman behar zitzaion. Hala, erronka horri heldu zion Hik Hasik. Egitasmoa abiatu eta bost urtera, *hik hasi* aldizkariaren 50. zenbakiarekin batera, Udako Topaketak antolatu zituen.

Aurretik Adarra talde pedagogikoak antolatzen zituen ikastaroak udan, baina baziren laupabost urte antolatzeari utzi ziola. “Geroztik hutsune bat nabaritu zen eta hori betetzera etorri ziren Udako Topaketak” dio Auzmendik. Formato aldetik hiru egunetan askotariko gaien inguruko ikastaroak eskaintzea izan zen eredia. Denak leku berean, elkarrekin, nahiz eta bakoitza bere ikastarora joan, sartu-irteeretan eta atsedenaldietan elkartzeko aukera izanez.

Lehendabiziko urtean orduan Donostiako Irakasle Eskola zen eraikinean eta Ekintza ikastolan egin ziren ikastaroak. Bigarren urtetik aurrera EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearekin hasi ziren elkarlanean eta han eta Ekintzan jarraitu zuten. Azken urteetan EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearen bi eraikinetan biltzen dira. Batean zein bestean, 20 urte hauetan zehar 10.000 lagunetik gora ibili dira ikastaroetan. Gutxi gorabehera 625 emaillek parte hartu dute urteotan eskaini diren 400 ikastaro ingurutan.

GAIA: UDAKO TOPAKETAK

20 urte elkarrengandik ikasten

Topagune bihurtuz eta euskaraz

Hiru ezaugarri edo ikur dituzte Udako Topaketek nagusiki: euskara, berritzailea eta topagunea. Euskaraz izatearenak hasieratik izan zuen funtsa, arrazoia eta motiboa. Aurretik irakasleei eskaintzen zitzaizkien ikastaro gehienak gaztelaniaz edo frantsesez ziren. Euskal Herrian jada euskarazko irakaskuntzan zebilen jendea lanean, euskaraz lanean, eta ezinbestekotzat jotzen den formakuntza ere euskaraz eskaintzea: “Logika argia du: euskaraz lan egiten ari zirenei, euskaraz eskaini behar zitzairen formazioa. Lan egingo zuten hizkuntza horretan formatu behar zuten, hori zen logikoa. Hik Hasin, behintzat, horrela ikusten genuen”.

Zenbait ikastarotarako, ordea, kanpoko jendea ekarri izan dute, euskal hiztunak ez direnak, eta hor ere irizpide garbia jarri zen hasieratik: ikastaroaren erdiak gutxienez euskaraz izan behar du. “Horrela, nahiz eta emaile batzuk gaztelaniaz, ingelesez edo italieraz aritu, ez zaie ikastaroaren erdia baino gehiago eskaini. Horien alboan beti egon dira euskaraz aritu direnak”.

Bigarren funtsezko ezaugarria topagunearena da. 11, 21 edo 31 ikastaro izan, jende asko biltzen da eta elkartzeko parada hori eskaintzea funtsezko xedea izan da hasieratik. “Azpiegitura aldetik ezinezkoa izan da 500 pertsona leku bakar batean biltzea, baina pare bat lekutan biltzea lortu dugu. Zirrargarria izan ohi da 500 pertsona etortzea bakoitza bere karpeteraren bila, elkarrekin hizketan aritzea ikastarora sartu aurretik, lagun zaharrekin topo egitea, jende berria ezagutzea... Hainbat irakaslek bakardadea

sentitzen dute ikasturtean zehar eta topalekua izatea lagungarria da. Jendeari gustatu egiten zaio eta guretzat esanahi berezia du. Inportantea da”.

Udako Topaketen koordinatzaileak aipatu duen elkartzeko horrez gain, ikastaroen inguruan beste hainbat topagune eskaini dira. Esate baterako, arratsaldeetako saioak: “Goi-zeko ikastaroez gain, arratsaldeetan saio libreak eskaini izan ditugu. Modu lasaiagoan hainbat gairen inguruko eztabaida saioak izan dira nagusiki, eta baita tailer moduan antolatutako ekintza praktikoak ere”. Lehendabiziko urteetan, ikastaroak hasi bezperan, ekitaldi bat egiten zen Gipuzkoako Foru Aldundian. Pil-pilean zegoen eta hezkuntzarekin lotura zuen gai baten inguruko hitzaldi bat antolatzen zen. Beste hainbat urteetan topaketei amaiera emateko bazkari bat egiten zen nahi zuen ororekin. Eta azken urteetan hamaiketako egin izan da. “Ekitaldi edo ekintza horiek guztiek modu batera edo bestera elkartzeko balio dute eta horixe nahi izan dugu: nahi duenari elkartzeko aukera eman. Izan ere, horrelakoetan elkar ezagutzeko, hitz egiteko, partekatze, hausnartzeko, eztabaidatzeko, entzuteko eta besteen esperientziak ezagutzeko aukerak sortzen dira, eta uste dugu merezi duela. Atsedean eta otordu garaiak une hezitzaileak dira Hik Hasirentzat” gaineratzen du Auzmendik.

Norabide horretan kokatuta eta aurten 20. urteurrenaren ospakizun modura, egun osoko jardunaldi bat antolatu da ikastaroen bezperan. ‘Hezkuntza errealitate berrietara jauzi’ izenpean hitzaldi bat eta lau mahai-inguru antolatu dira. Hezkuntza arlotik at dabil-tzan hainbat aditu eta aritu izango dira bertan, bakoitzak bere esparrutik bi galdera



GAIA: XX. UDAKO TOPAKETAK



hauei erantzunez: Bata, “10-20 urte barru nolako gizartea irudikatzen duzu? Zein izango dira premia nagusiak? Zeri erantzun beharko zaio?”. Eta bestea, “Horretarako zer-nolako hezkuntza behar da? Nola hezi behar ditugu haur eta gazteak?”. Parte-hartzaileen artean izango dira Juan Jose Ibarretxe hasierako hitzaldia ematen eta gainerakoak mahai-inguruetan: Joseba Azkarraga Etxagibel, Idurre Eskisabel, Maitane Arnoso, Marga Iñiguez, Arcadi Oliveres, Txusa Balbás, Jon Sarasua, Ion Errea, Aritz Otxandiano, Heike Freire, Tamara Claveria eta David Fernandez.

Ikastaro berritzaileak

Topaketen beste ezaugarri nagusietako bat berrikuntzarena da. “Eskaintza berritzailea egiten saiatu izan gara beti” dio Auzmendik. “Eta horretarako, beti egon izan gara jendearen beharretara adi: Hik Hasiko taldean eskoletan lanean dabilzan irakasleak ditugu eta haiek diotena aintzat har-tzen dugu, ikastaroetan balorazio orriak banatzen ditugu eta kezka eta beharrak detektatzeko zein proposamen berriak jasotzeko bide ematen digu, unibertsitateetako adituekin harremanetan gaude, eta Hik Hasira deitzen duen edonori entzuten diogu”. Irekiera horregatik agian, batzuetan gertatu izan zaie aurreratzea, ikastaro batzuk proposatzea baina jendea oraindik ez egotea prest gai horiek lantzeko edo denbora gehiago behar izatea. Besteak beste, hori gertatu zitzaizen etorkinen inguruko lehen ikastaroa eskaini zutenean, edota bullying-ari eta suizidioari buruzkoak eskainitakoan.

20 urteko ibilbideari begiratuta eboluzio bat antzematen da ikastaro eskaintzari begiratuta. Betidanik izan dira ikastaro teoriko-praktikoak, baina teoriak zuen lekua galtzen joan da urtetik urtera. “Lehen eskolan eragiteko ikastaroak ziren, eta gaur egun norberarengan eragitekoak dira gehienbat. Jendearen beharra aldatu egin da eta

horren arabera eskaintza ere bai” azaltzen du Auzmendik. Zentzu horretan, yoga, mindfulness, garapen pertsonala, pedagogia sistemikoa eta horrelako gai berriak agertu dira. “Hasierako urteetan informatikaren inguruko ikastaroek arrakasta handia zuten, behar handia zegoen arlo horretan. Orain, aldiz, behar hori ez da somatzen. Horrekin batera, hasierako urteetan pedagogo bati buruzko ikastaro bat eskaintzen genuen: Vigotski, Gardner, Kolhberg... eta gero bakoitzari buruzko monografiko bat argiratu zen”. Sormenari lotuta ikastaroak beti eskaini izan dira, nahiz eta ez diren ikastaro oso jendetsuak izatean. “Baina guk uste dugu arlo artistikoa lantzea garrantzitsua dela emozioak kudeatzen ikasteko eta espresioa lantzeko”. Horregatik, nahiz eta erantzuna ez izan esperotakoa, interesgarriak iruditzen zaizkien ikastaroak eskaini egiten dituzte. Gauza bera gertatzen da Bigarren Hezkuntzako irakasleei zuzendutako ikastaroekin. Lehendabiziko urtetik eskaini izan dira etapa horri zuzendutako ikastaroak, DBHko irakasleek ikuspegi hezitzailea edukitzeko beharra antzematen delako eta horretan ekarpen bat egin nahi izan delako. “Nahiz eta gero ikastaroa aurrera ez atera, gai edo arlo batzuk lantzea interesgarria iruditzen zaigu eta merezi duelakoan gaude”.

Plaza irekia

Hik Hasirekin batera beste hainbat eragilek eta elkartek hartu dute parte 20 urte hauetan. Bigarren urtetik aurrera bidelagun izan da EHUko Hezkuntza eta Filosofia Fakultatea, hurrengo orrietan Felix Basurko eta Joxe Garmendiak azaltzen duten moduan. Argitaletxeei ere beren liburuak eta ikasmaterialak erakusteko gonbidapena egin izan zaie eta hor egon dira mahaiak jarrita gerturatzen zirenek ikusteko. Beste batzuk Udako Topaketak baliatu dituzten euren elkarteko aurkezpenak edota bilerak egiteko. Esate baterako, EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak.

Udako Topaketak unibertsitatetik begiratuta

EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearekin batera antolatzen ditu Hik Hasik Udako Topaketak. Bigarren urtetik aurrera hasi zen elkarlan hori eta ibilbide horretan giltzarri izan da Felix Basurko irakasle ohia. Haren lekukoa hartu zuen Fito Rodriguezek eta gaur egun Joxe Garmendiak darrai. Basurko eta Garmendia elkartu ditugu unibertsitatetik Udako Topaketak nola ikusi izan dituzten eta nola ikusten dituzten galdetzeko, eta elkarlanaren nondik norakoez aritzeko.

Noiz hasi zen Hik Hasiren eta EHUren arteko elkarlana?

Felix Basurko.- Lehendabiziko urtean Ekintza ikastolan eta orduko Irakasle Eskolan antolatu zituen Udako Topaketak Hik Hasik. Bigarren urtean, ordea, Pedagogia fakultatean, baina inolako harremanik edo elkarlanik gabe: idazkaritzara joan, gelak eskatu eta alokairua ordaindu. Horrela izan zen. Hala, ikastaroen egunetan, behera jaitsi eta han ikusi nituen Hik Hasikoak. Interesatu egin nintzen. Interesgarria iruditzen zitzaidan irakasleak Pedagogia fakultatera joatea formazioa jasotzera. Euskal hezkuntza sisteman lanean zihardutenak eta unibertsitatea lotzea, alegia.

Unibertsitatea eta hezkuntza sistema gerturatzeko beharra ikusten zenuen?

Felix Basurko.-Bai, LOGSEk biak banatu egin zituen eta unibertsitatea hezkuntza sistematik at geratu zen. Orduan, bakoitza bere bidetik joan da. Unibertsitateak berak ere bere proiektuak eta bere bideak jorratu ditu. Ni, ordea, hezkuntza sistematik nentorren, eskola batean irakasle izan nintzen, eta ez nuen banaketa horrekin bat egiten. Nik ikusten nuen bien arteko lotura. Ni nengoen Sailean, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean, betidanik eman genion garrantzia eskolarekiko loturari. Pertsonal berria hautatzerakoan eta kontratatzerakoan, adibidez, kontuan hartzen zen eskoletan izandako esperientzia eta eskarmentua.

Hori baloratzen zen: etorritako berriek hezkuntza sistema ezagutzea, ez teoriarik bakarrik, baizik eta praktikan ere bai, barrutik. Horregatik, bai Pedagogia fakultatearentzat eta bai Hik Hasirentzat, biezat ikusten nuen interesgarria elkarlana. Nire sailetik afinitate handiz ikusten genuen Hik Hasiren mugimendua eta asko baloratzen genuen bere planteamendua eta egitasmoa.

Zergatik ikusten zenuen interesgarria?

Felix Basurko.- Alde batetik, Pedagogia euskal hezkuntza sistemara txertatzeko baliagarria izango zela iruditzen zitzaidan. Bestetik, ikastaroak berrikuntzari lotuta zeuden eta Pedagogia ere berrikuntza abiatzeko sortu zen. Horrez gain, Udako Topaketetan hasieratik egin zitzaion lekua hausnarketari eta gure sailean ere bai. Hor beste afinitate bat sortu zen. Eta bazen beste ezaugarri bat ere: gure ikasleak beren fakultatean eskarmentuko irakasleekin elkartzeko aukera izatea. Azkenik, aipatuko nuke Hik Hasiren proiektua zeharlerrokoa zen, transbertsala, publiko-privatu dikotomia gainditzen zuena, eta hori ere interesgarria zen.

Edonola ere, hasierako gerturatze hori nik neuk egin nuen, interes pertsonalagatik. Eta gerora etorri zen unibertsitatearen inplikazio zabalagoa.

Nolakoa izan zen elkarlan horren hedapena; alegia, zure inplikaziotik fakultatearen inplikaziora igarotzea?

Felix Basurko.- Behin harreman pertsonalarekin hazia ere-inda, hurrengo urratsa hori finkatzea zen. Nire sailean eta ingurukoetan topaketen inguruko informazioa ematen nuen eta lortu nuen topaketen garaian hainbat irakasleek ikastaro proposamenak egitea eta ikastaroak ematea.

Hurrengo pausoa fakultatea instituzio gisa inplikatzeko izan zen. Hasieran errezelo asko ikusten nituen. Hik Hasi proiektu pribatu gisa ikusten zuten eta gelak alokatu egiten zitzazkion. Ni saiatu nintzen gure proiektua zela ikustarazten, gure sailarekin lotura zuen egitasmo bat zela frogatzen eta, ondorioz, ez zuela ordaindu behar azaltzen. Hori lortu zen. Eta hortik beste aurrerapauso bat eman zen: sailetik fakultatera pasatzea. Alegia, fakultate gisa egitea elkarlana. Gaur egun horrela jarraitzen du, dekanotzak ere badu empatia bat Hik Hasirekin. Hori izan zen nire azken zeregina: topaketak instituzionalizatzea. Nire edo sailaren kontu bat izatetik fakultatearen elkarlan bat izatea lortu genuen. Eta hori barneratuta dago gaur egun.

Zertan gauzatzen da elkarlan hori?

Felix Basurko.- Alde batetik, fakultateko irakasleek ikastaroak eskaintzeko aukera dute eta ikasleek erdi prezioan

GAIA: XX. UDAKO TOPAKETAK

eman dezakete izena. Bestetik, unibertsitateak gelak eta zerbitzu teknikoak eskaintzen dizkio Hik Hasiri ikastaroak aurrera eramateko. Horrek berekin matrikularen prezioaren merketzea ekarri du. Hori ikastaroen egunetan. Garrantzitsuena da horrekin lotura eginda geratzen dela eta elkarlan gehiagorako bidea irekita uzten duela.

Ikasturtean zehar bestelakorik egiten al da?

Joxe Garmendia.- Elkarlanak eskola eta unibertsitatea elkartzeko balio du. Nik esango nuke unibertsitatetik Hik Hasi baliabide bezala ikusten dela: ikastaroak ematen ditu, aldizkariak argitaratzen ditu... eta hortik hezi egiten gara, ikasi egiten dugu, osatu egiten gara. Elkarri ideiak pasatzen dizkiogu eta ideien trukaketa badago. Beharbada instituzionalizatu gabe edo forma zehatz bat eman gabe daukagu, baina elkarlana badago eta zenbait gauza egin izan dira topeketez aparte. Esate baterako, herri hezitzaileen proiektuan biok aritu gara, beste eragile batzuekin batera. Edonola ere, lankidetzaren gehiago sakondu genezake, jarraipen estuago egin, nahiz eta eguneroko dinamika ez duen errazten.

Zuen ustez, zer-nolako ekarpena egin dute Udako Topaketek urte hauetan?

Joxe Garmendia.- Nik esango nuke euskaldunon bilgune bat dela Hik Hasi, eta zentzu horretan ikasturtea bukatutakoan topaketak egiteak balio sinboliko eta esanguratsua duela. Harremana eta elkartasuna. Hor dago gakoa: jendea biltzeko eta ikusteko aukera ematen du. Hik Hasi komunitatea osatu da; aldizkariak ikastetxeetara eta harpideengana iristen dira, bai Hik Hasi eta bai Hazi Hezi, topaketetan parte hartzen duten hizlariak agertu izan dira aldizkarietan eta abar. Konturatu gabe, hor badago sorkuntza prozesu bat, saretze prozesu bat, eta elementu horien guztien artean Udako Topaketek harreman fisikoa eta zuzeneko edukitzea aukera ematen dute. Ikastaroak bibentzialak dira eta horrek aukera ematen du jendea ezagutzeko, transmititzeko eta aurrera begira elkarlanerako bideak irekitzeko. Etorzen diren batzuk aurretik ezagutzen dira Ikastolen Elkartearen daudelako, eskola publikoetakoak direlako edo beste bilera batzuk egiten dituztelako. Baina Udako Topaketek beste testuinguru bat eskaintzen dute: beraiek nahi dutelako etortzen dira, ez ikastetxetik bidali dituztelako.

Eskaintzen den formazioa erabat berritzailea da. Horretan eguneratuta dago Hik Hasi. Eta horri gehituko nioke Hik Hasik hezkuntzaren berrikuntzan egiten duen lana independentea dela. Berrikuntza ikusi eta ez duenez inolako curriculum itxirekin jardun beharrik, askatasuna du proposamenak egiteko eta hori positiboa da. Jendeak zer nahi du,




Joxe Garmendia eta Felix Basurko.

zer da aurrerakoa, bada hor egiten du ekarpena. Hor bere bidea aurkitu du Hik Hasik eta uste dut errekonozimendua eta errespetua irabazi dituela.

Felix Basurko.- Nik berrikuntza kontzeptua azpimarratuko nuke, baina ez gaiari dagokionez, ereduari dagokionez baizik. Nire ustez Hik Hasiren lan egiteko modua, bere formakuntza eredu da azpimarratzekoa. Gu ohituta geunden administrazioetik formakuntza iraunkorra edo jarraia eskaintzen zuten ikastaroak egiten edo ikusten. Haiek goitik behera erabakitzen ziren; goian erabakitzen zen zertan hezi behar zen jendea. Administrazioaren interesen arabera berrikuntza ikastaroak ziren.

Hik Hasik alderantziz egiten du: lehendabizi jendea galdetu zer nahi duen, horren arabera prestatu ikastaroak, eta gero, jendearen erantzunaren arabera ikusi zein diren bideragarriak. Horrez gain, aipatu beharra dago ikastaroak teoriko-praktikoak izan direla beti, irakasleen eguneroko praktika hobetzera zuzendutakoak. Beraz, behetik gorako eredu eta teoriko-praktikoa. Eredu horrekin asmatu egin du eta interesgarria izan da.

Urtez urtez, irudiz irudi



2000



2001



2002



2003




2004



2005



2006



2007



2008

GAIA: XX. UDAKO TOPAKETAK



2009



2010



2011



2012



2013



2014



2015



2016



2017



2018



2019



“Uste dut denbora gehiago pasatzen dugula atletekin gaitasunak lantzen irakasleekin baino”

ELKARRIZKETA:

MARY BURNS

IRAKASLEEN FORMAKUNTZAN ADITUA

Euskal Wikilarien Kultur Elkarteak gonbidatuta etorri zen Euskal Herrira Mary Burns irakasleen formakuntzan eta ikaskuntza-teknologian aditua. Wikimedia eta Hezkuntza Nazioarteko I. Konferentzian parte hartu zuen. Bost kontinenteetan lan egin du maistra, instruktore, ebaluatzaile, aholkulari eta beste hainbat zereginetan. 100 argitalpen baino gehiago ditu eginak. Hezkuntza erronka berriak gustuko ditu eta bere

pasioa bi adar uztartzean datza: irakasleen formazioa eta teknologia berriak. Horren haritik proposatzen du irakaskuntza sakona lantzea edo hori hartzea erreminta gisa irakasleak formatzeko. Informazioa emateaz gain, esperientzia ematen dielako irakasleei. Burnsen ustez, oso garrantzitsua da irakasleei esperientzia eta praktikak bizitzeko aukera ematea gero haiek ikasleekin gauza bera egin dezaten.



Irakasleak formatzen dituzten formatzaileak prestatzen aritzen zara. Beste modu batera esanda, irakasleak prestatzen dituztenekin, haiek formatzen. Zein da zure lan-arloa edo zer da jorratzen duzuna?

Azken 22 urteotan lanbide garapean aritu naiz eta horren barruan teknologiaren arloa landu dut irakasleekin batera. Nire lanaren zatirik handiena teknologiaren erabilerari buruzkoa izan da. Eta horixe da nire pasioa: teknologia erabiltzen irakasten diet teknologiarekin zerbait desberdina egin dezaten, teknologiarik gabe egin ezin dutena.

Zer da zehazki zerbait desberdina den hori?

Ikaskuntza sakona sustatzea ikasleen artean. Badakigu ikasleek pentsalari kritikoak izan behar dutela eta modu sakonean ikasi behar dutela unibertsitatera heltzeko, lanbide bat lortzeko edo herritar onak izateko. Horretan laguntzea da nire pasiorik handiena.

Ikasleek ikaskuntza sakona landu dezaten, aurretik irakasleek ere hori

bera landu eta praktikatu behar dutela defendatzen duzu.

Bai, halaxe da. Irakasleak formatzen dituzten formatzaileekin aritzen naiz eta galdera bat luzatzen diet: ‘Zer egiten duzue zuek ondo-ondo? Zertan duzue esperientzia? Zeinek lagundu dizue esperientzia hori lortzen?’. Eta erantzunak honakoak izan ohi dira: hausnarketaren bitartez, ikerketen bitartez, praktika gidatuen bitartez eta abar ikasten dutela gehien. Horien bitartez lortu dute diren horretan onak izatea eta esperientzia edukitzea.

Hortaz, hurrena beste galdera bat egiten diet: ‘Pentsatu zuekin aritzen diren irakasleengan: nola lagundu diezaiekegu irakasleei euren esperientzia sakontzen? Hitzaldien bitartez, hausnarketaren bitartez, behaketaren bitartez, praktika gidatuen bitartez...’.

Gehienek diote esperientiaren ondorioz ikasi dutela, besteengandik eta gauzak egitetik. Eta baita praktika gidatuetatik ere. Informazioarekin, hitzaldiekin eta behaketarekin ere ikasten dute, baina gutxiago. Irakasleen prestakuntzan badago zer-

bait ondo egiten ez duguna. Irakasleei teknologia berrien, hedabideen eta abarren inguruko informazioa ematen diegu, haiek irakaskuntzan erabil dezaten. Baina gero ez dute erabiltzen. Falazea bat daukagu. Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleek erronka galanta daukate: ikasle batzuk hartu eta aditu bihurtu behar dituzte. Eta irakasle horiek prestatzen dituzten formatzaileek berdin: irakasle horiek aditu bihurtu behar dituzte, eduki digitalak nola funtzionatzen duten irakatsi behar diete, teknologiak nola funtzionatzen duen. Eta hori ez dute hitzaldiek lortzen, nahiz eta gehien erabiltzen den formatua izan. Horretarako ikaskuntza sakona behar da, ez hitzaldiak.

Oraindik ere hitzaldia da informazioa zabaltzeko eta irakasteko gehien erabiltzen den formatua, baina ez dela egokiena diozu. Zergatik?

Mundu osoko hezkuntza sistematan gehien ikusten dudana da. Irakasleei laguntzeko gehien erabiltzen den formatua da, bai haien ikaskuntza gaitasuna garatzeko eta baita ikaslee-

na ere. Gauza ona dirudi, eta funtzionatzen duena.

Bai, funtzionatzen du, baina zertarako? Hitzaldiak dira irakasleei informazioa emateko eta haien gaitasuna garatzeko baliabide nagusia. Hitzaldien bidez informazioa ematen da, eta pentsatzen dugu horrekin automatikoki ikasten dela; eta ez da hala. Informazioa jasotzea garrantzitsua da, baina hitzaldiek ez dute askotarako balio, ez behintzat jendeari irakasteko haiek ikasten ikasteko. Gu ikerketak egiten aritu gara eta ikusi dugu jendeak gutxi atxikitzen duela hitzaldietatik. Hitzaldiak egokiak dira azaleko ikasketarako. Baina ez sakoneko ikasketarako. Hitzaldiak labezomorroak bezalakoak dira. Labezomorroek bezala bizirauten dute, baina azaleko ikaskuntzan.

Beraz, zera esan nahi dut: irakasleei lagundu nahi baldin badiegu, ezin dugu hitzaldien bitartez egin, hori denbora galtzea da. Irakasleen denbora galtzen ari gara horrela.

Adibide bat jarriko dizuet: futbol jokalaria eta irakaslea. Bi profesional horien artean, nork jasotzen du prestakuntza profesional hobea? Nork jasotzen du laguntza gehien profesional izateko? Futbolariak. Uste dut denbora gehiago pasatzen dugula atletekin gaitasunak lantzen irakasleekin baino. Horregatik diot irakasleekin denbora inbertitu behar dela. Hitzaldiak onak dira, baina irakasleek gehiago behar dute. Eredua jaso ondoren praktikan jarri behar dute. Diseinu berri bat egin, erratu behar badute erratu, eta hori egin dezakete laguntzarekin, prestakuntzarekin eta epe luzera.

Ikaskuntza sakona aipatu duzu. Zer ulertzen duzu kontzeptu horrekin?

Informazio, ideia eta kontzeptu berriak arinagotik geneukan ezagutzarekin eta esperientziarekin lotzea da ikaskuntza sakona. Beste hitz batzuetan esanda, ezagutza gure sistema kontzeptualetan integratzea eta ereduak eta printzipioak identifikatzea. Eta era berean, ebaluatzea; hau da, ideia berriak ebaluatzea eta ondorioekin lotzea. Eta baita eztaba da sortzea ere ezagutza berrien inguruan. Beraz, ikaskuntza sakona hori

guztia da: erlazionatzea, integratzea, identifikatzea, ebaluatzea, eztabaidatzea eta aztertzea, besteak beste.

Horregatik, nik defendatzen dudana zera da: informazioaz haratago, ikaskuntza sakona eduki digitalaren bitartez. Informazioa edukitzea garrantzitsua da, ez dut hori ukatzen, baina ez da nahikoa. Unibertsitateko irakasleei, derrigorrezko hezkuntzako irakasleei, haien formatzaileei... denei ikaskuntza esperientzia eman behar diegu. Norberarentzat aditu izateko baliagarria izan dena eman behar diegu besteei ere: praktika, lankidetzeta, besteekin aritzea, esperientzia bera.

Aipatzen dudana prestakuntza sakona, eduki digitala erabiltzen duen ikaskuntza sakona, baliagarria izan daiteke tresna modura irakasleentzat eta baita gero haien ikasleentzat ere.

Ikaskuntza sakona eduki digitalekin lotzen duzu. Ezinbestean biak lotuta joan behar dute ala posible da eduki digitalik gabeko ikaskuntza sakona?

Bai, noski dela posible. Paper zatitxo batekin ere egin daiteke ikaskuntza sakona. Gauza ez da hardwarea, softwarea edo dena delakoa behar izatea. Nire kide batek esaten zuen moduan, gauza buruarena da, pentsamendu kontua. Ikasteko, erremintarik onena galdera da; galderak egitea, galderak botatzea.

Edonola ere, eduki digitalen kasuan, ondo diseinatzen bada, benetan arreta deitzen du, jendea erakarri egiten du. Joko modura planteatu eta jendea sartu egiten da. Erakargarriak dira eduki digitalak eta horregatik dira egokiak ikaskuntza sakonean erabiltzeko.

Dena dela, argi eduki behar dugu ezin diegula edozein eduki eman heldu zein umeei eta kito. Erakutsi eta lagundu egin behar diegu nola erabili hausnarketarako eta ikasketarako. Zeren askotan pentsatzen dugu teknologia bera erakargarria bada horrek berak erakutsiko diola jendeari, eta ez da hala izaten beti. Batzuetan bai, didaktikoa den teknologiak lortzen du hori. Baina beste batzuetan beste batzuen laguntza behar izaten da helburu zehatzak lortzeko eta hezkuntzaren arloko edukiak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko.

“Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleek erronka galanta daukate: ikasle batzuk hartu eta aditu bihurtu behar dituzte. Eta irakasle horiek prestatzen dituzten formatzaileek berdin: irakasle horiek aditu bihurtu behar dituzte, eduki digitalak nola funtzionatzen duten irakatsi behar diete, teknologiak nola funtzionatzen duen. Eta hori ez dute hitzaldiek lortzen.”

“Informazio, ideia eta kontzeptu berriak arinagotik geneukan ezagutzarekin eta esperientziarekin lotzea da ikaskuntza sakona.”

“Ikasteko erremintarik onena galdera da; galderak egitea, galderak botatzea”



Gainera, zenbait kasutan eduki digitalak norberak bakarrik erabilteko modukoak izaten dira, bakarrik egiteko moduko ariketak daude. Baina besteekin hitz eginez, galderak eginez eta abar ikasten da benetan; alegia, osagai sozial hori eta aktibotasun hori landuta.

Garrantzitsua da testuinguru sozial batean irakastea. Baliabide digitalak bisualak dira, mugimendua dute, koloreak, animazioa, eta arreta beregatatzen dute. Baina hori dena testuinguru sozial batean kokatu behar da, hezkuntza testuinguru batean, horrela jendeak hobeto ikasiko baitu.

Ikaskuntza sakonaren adibide bat eman diezagukezu?

Bai, noski. Esate baterako, wiki-median eduki pila bat dago libre Interneten eta baliagarria izan daiteke irakasleei ikaskuntza sakona zer den erakusteko. Adibidez, matematikako irakasleen kontseilu nazionalak egindako ariketa bat azalduko dizuet.

Hasierako planteamendua zera da: *trianquad* izeneko forma geometriko imaginario baterako definizioa sortu behar da.

Orduan, nik hainbat irudi geometrikoren adibideak erakusten ditut baliabide digitalak erabiliz, irudi desberdinak, eta taldean jarrita eztabaidatu eta erabaki behar dute irudi horiek *trianquad* izan daitezkeen ala ez. Gero eta irudi gehiago ikusi, informazio eta zehaztasun gehiago jasoko dute ariketa egiten ari direnek.

Guztira 18 irudi erakusten ditut eta bakoitza *trianquad* bat den edo ez erabaki behar du taldeak. Adibide guztiak ikusitakoan talde bakoitzak *trianquad*-aren definizioa osatu behar du. Talde bakoitzak bere definizioa izango du. Adibidez, talde batek esan dezake: 'Oraindik ez gaude ados formaren eta definizioaren artean, baina hau izan daiteke: hiruki batez ari gara eta gutxienez erpin bat partekatu behar du inguruan dituen beste formekin'. Beste talde batek esan

dezake: 'Lauki itxura duen forma bat da, hirukiaren erpin bat partekatzen duena'. Beste batek: 'Gure taldearen arabera lerro bat da, lerro bat erabili dezakegu forma guztiak batzeko, baina lerro horrek bi zatiketa eremu izango ditu, batean lau erpin egongo dira eta bestean hiru'. Horrela, definizioa osatzen da denen artean. Kasu honetan hauxe izango litzateke: bi forma geometriko dira, triangulu bat eta lauki bat, eta erpin bat partekatzen dute.

Ariketa txiki hau matematikako irakasleen kontseilu nazionalak diseinatu zuenez, hezkuntzarako tresna didaktikoa da, interaktiboa da eta eduki digitala erabiltzen du. Baina horrek nola sustatzen du ikaskuntza sakona? Zer egiten da ariketa hau egin bitartean? Aurrena norberak bere kabuz pentsatu, identifikatu, eta gero taldean eztabaidatu, iritziak partekatu, kanpoko informazioa erabili agian eta abar. Hau da, azken finean aurretik duten ezagutza informa-

zio berriarekin integratzen dute eta informazioa koeraiki. Ariketa egin bitartean elkarren artean komunikatzen dute, estrategiak ebaluatzen dituzte eta abar. Oinarri-oinarrian arrazonamendu induktiboa erabiltzen dute. Eta normalean, ikastetxeetan, batez ere Matematiketan, ez da irakaskuntza induktiboa baliatzen, deduktiboa baizik. Ikasleei esaten zaie ‘hau da Pitagoraren teorema’, eta gero 30 adibide ematen zaizkie arau hori baieztatzeko. Hori ikaskuntza deduktiboa da. Baina guk induktiboa egin nahi dugu. Ariketa honetan oharrrak ateratzen dituzte (‘hau horrela izan daiteke’, ‘honela ezin daiteke izan’...) eta informazio berria agertu ahala irudien errepikapena ikusten dute. Horrela hasten dira hipotesiak formulatzen, euren hipotesien inguruan hausnartzen, ideia orokor batzuk ateratzen, eta azkenean definizio edo teoria bat ateratzen dute.

Ez da sistema perfektua, denbora eskatzen duelako, baina ariketa honen bitartez ikaskuntza sakona lortzen dute ikasten ari direnek: informazioa daukate, hausnartu egiten dute, lankidetzan aritzen dira, estrategia berriak ebaluatzen dituzte... Eta ariketa egiteko eduki digitalak erabilia erakargarritasuna lortzen da. Horrelako ariketak egin behar dira irakasleekin, gero haiek ikasleekin egiteko.

Ariketa hau hezkuntzarako diseinatuta dago. Baina wikimedien bereziki hezkuntzarako ez den eduki asko dago. Horiek ere erabili daitezke ikaskuntza sakonerako? Nola?

Bai, erabili daitezke, eta nik erabili izan dudana adibide bat jarriko dut. 1964an AEBn egindako iragarkia bat jartzen dut pantailan ikusgai eta bi galdera luzatzen ditut: Zer gertatzen da iragarkian? Eta zein da mezua?

Beraz, lehenengo iragarkia ikusi behar da, gero pentsatu eta ondoren iritziak partekatu eta eztabaidatu. Hala, 1964ko txuri-beltzeko iragarki honetan neska bat lore bati petaloak kentzen ikusten da eta zenbatzen hasten da. 1etik 9ra kontatu behar du, baina kontua galtzen du eta ez du ongi zenbatzen. Gero ahots bat entzuten da eta gero leherketa nuklear

bat. Amaierako mezuaren aurretik beste ahots batek esaten du (Lyndon Johnson presidentegaiaren ahotsa da): bozkatu edo hil egingo zara.

Beraz, iragarkia ikusi eta bakoitzak bere iritzia eman dezake taldean eta gero orokorrean. Talde batek esan dezake: ‘Guk kontrastea ikusi dugu: alde batetik neskatxoak arretea deitzen du eta bestetik izugarritzko leherketa. Horrez gain, AEBko jendeak familia ikusiko luke lehendabizi neska ikusitakoan, eta gurasoek bozkutzen dute. Beraz, gurasoentzako mezu bat dagoela uste dugu: zuek bozkutzen ez baduzue, ez dute etorkizunik izango zuen seme-alabek. Beraz, bozkatu edo ez zara etxetik aterako’;

Beste talde batek beste hausnarketa desberdin bat egin dezake: ‘Guk uste dugu negatibotasuna manipulatu dela: ez badiozu hautagai honi bozkutzen, hau gertatuko zaizu: bonba nuklearra, hezkuntzarik ez, heriotza, heriotzarik okerrena; bihotzekoak emanda ez, eraso nuklear batek hila’.

Iritzi asko eta desberdinak sor daitezke eta horrek hausnarketan sakontzeko aukera ematen du, ezta?

Hala da, askotariko iritziak atera daitezke. Esate baterako: ‘Gure iritziak mezu paternalista bat dauka: Johnson presidenteak leherketa batetik salbatuko gaitu. Jainkoaren antzekoa da’; ‘Gure ustez diseinatzaileek neska hori Johnsonen kontrakoekin lotzea nahi dute, kontatzen ez dakien ume bat da. Eta Johnson, berriz, erantzukizunez jokatzeko duen haurra izango litzateke, kontatzen dakiena, jainkoa balitz bezala’; ‘Guk uste dugu beldurra erabiltzen duela hautagaia- ren aldeko botoak lortzeko. Gure emozioetako bat ukitzea lortzen du: beldurra. Kultura guztietan ditugu estereotipoak: heriotzaren inguruan, haurren inguruan, beldurra ematen duten gauzen inguruan, aitaren eta amaren inguruan... eta horren apologia egiten dute. Nola? Bi alderdi lotuz: bizitza eta heriotza, inozentzia eta gaiztakeria, haurtxo polit hori naturaren inguruan eta gero suntsiketa’.

Iritzi sorta horren ondoren, beste galdera bat luzatu daiteke: 1964ko iragarkia da. Behin bakarrik jarri zuten eta berehala kendu zuten. Iragarki

“Proiektu eta esperientzia asko daude. Baina non dago gakoa? Galderak egitean. Erantzunak eman ordez, galderak egitean. Hori egin behar da irakasleekin ere: erantzunak eman ordez galderak egin. Galderak egin behar ditugu hausnarketa bultzatzeko, esploratzeko, ebaluatzeko, eta horrek bultzatuko ditu pentsatzera, horrekin lortuko dute informazioa kontrolatzea. Eta horretan datza ikaskuntza sakona”

“Erakargarriak dira eduki digitalak eta horregatik dira egokiak ikaskuntza sakonean erabiltzeko. Hori bai, irakasleei erakutsi egin behar zaie nola erabili hausnarketarako eta ikaskuntzarako”



boteretsua da. Zergatik? Zer ari zen gertatzen garai hartan? Gerra hotza, Vietnam, Kennedy presidentea hil zuten 1963an, Kubako misilen krisia 1962an... Horrek guztiak zerikusia izan dezake. Testuinguru historikoa daukagu hori dena ulertzeko. Horregatik, ariketa hau tresna bat izan daiteke Historia ulertzeko. Askotan haurrek ez dute ulertzen historia, ez baitugu konektatzen emozioekin, eta iragarki honek horretarako bidea ematen digu.

Abiapuntua bera da desberdina. Galderak egiten hasten zara ezer azaldu aurretik.

Ariketa honetan Bloom-en taxonomia erabiltzen dut. 1956an sortutako taxonomia da eta esaten du oinarritzko informazioa ikasteko lehenengo ulertu, ikasi eta gogoratu egin behar dela, eta gero joan goi mailako ikasketaraino. Pausoz pauso. Eta ariketa honetan horixe egiten da. Lehenengo garai hartan gertatu zena gogoratzen da, zer gertatzen zen 1964. urte hartan.

Horrela ulermena lantzen da. Horrez gain, iragarkia aztertzen da, laburtu, mezua atera eta estrategia batzuk ebaluatu. Hori egiteko pentsamendu kritikoa erabiltzen da, hau da, ikaskuntza sakonari lotutako gaitasun bat. Eta irakasleek hori egin behar dute, horrelako ariketak egin behar dituzte, esperimentatu, gero ikasleekin egiteko.

Proiektu eta esperientzia asko daude. Baina gakoa non dago? Galderak egitean. Erantzunak eman ordez, galderak egitean. Hori egin behar da irakasleekin ere: erantzunak eman ordez galderak egin. Galderak egin behar ditugu hausnarketa bultzatzeko, esploratzeko, ebaluatzeke, eta horrek bultzatuko ditu pentsatzera, horrekin lortuko dute informazioa kontrolatzea. Eta horretan datza ikaskuntza sakona.

Eduki digitalaren balioa aipatzen duzu. Zein da eduki digitalen alderdirik onena?

Eduki digitalen alderdirik onena

atentzioa edo arreta deitzen dutela da, eta teknologia horiek erabiliz, irakasleak ikasleak erakarri eta jokoan sartzen ditu.

Nik badut mezu simple bat: eduki ona behar dugu, baina edukian eta informazioan zentratzeaz gain, irakasleak eduki digitalen erabileran trebatzea nahi baldin badugu, esperientzian eta prestakuntzan ere arreta jarri behar dugu. Onena nahi baldin badugu, asko saiatu behar dugu, irakasleak ere asko saiatu daitezen ikasleei erakusteko orduan. Horregatik uste dut nik ikaskuntza sakona oso garrantzitsua dela. Guk nahi dugu gure ikasleak prestatuta egotea unibertsitaterako eta lan mundurako, aktiboak izatea, informatuta egotea, erantzukizunez jardutea eta moralki herritar onak izatea. Beraz, horretarako informazioa garrantzitsua dela esango nuke, baina hatarago joan behar dugu irakasleek esperientzia lor dezaten, beraiek izango baitira gero ikasleekin jardungo dutenak.

Hazi Hezi eta Hik Hasi

haziera eta heziketarako euskal aldizkariak



Urtean 4 aldizkari 20 €



Urtean 10 aldizkari 50 €

**hik hasi aldizkarian harpidetza eginda, beste
15 euroren truke eskuratu Hazi Hezi!**

Idazki: hikhasi@hikhasi.eus edo 906 969 343-37 34 08 telefonoari

Hazi Hazi eta Hik Hasi... familia eta eskola...
heziketa garrantzia
ematen dugun komunitate

www.hikhasi.eus

ESPERIENTZIAK

'IKASLAGUN' EGITASMOA ZARAUTZEN

Boluntariotzatik, premia duten ikasleei lagun egiten

'Ikaslagun' izeneko proiektua jarri zuten abian Zarautzen duela hiru ikasturte. Izenak berak iradokitzen duen moduan, ikasteko laguntza ematea du xede egitasmoak. Hala, boluntario talde zabal batek laguntza akademikoa ematen die ekonomikoki baliabide gutxi dituzten familietako haur eta nerabeei. Orain arteko bideak eman dituen fruituekin pozik eta begirada etorkizunean jarrita, ilusioz mintzo dira Ikaslagun Irakaskuntza Laguntza Elkarteko bi kide: Mariaje Zumeta eta Iñaki Azkune.

Duela 10 urte Donostian jaio zen “Hazi eta ikasi” egitasmoa eredutzat hartuta, “Ikaslagun” proiektua sortu zuten Zarautzen 2016an. Udaletik sustatuta, jubilatutako hiru irakasleren ekimenez jarri zuten abian ekimena —Mariaje Zumetak, Eulojio Saavedrak eta Iñaki Azkunek—, helburu argi batekin: baliabide ekonomiko gutxiko familietako haur eta nerabeei laguntza akademikoa ematea modu boluntarioan. Baina, askok uste duenaren kontrara, ez da ikasle etorkinentzako programa bat eta edonori dago irekia.

“Azpeitiko institutuan jubilatuta ondoan ere bertara joaten nintzen arazoak zituzten ikasleen integrazioan laguntzera, eta bururatu zaitzaidan Zarautzen ere antzeko zerbait egin zitekeela eta Udaleko teknikariari komentatu nion”, kontatzen du

Azkunek. Hala, hiru irakasle jubilatuta horiek taldea osatzeko deialdia egin zuten Zarautzen, eta 10-12 boluntario inguru elkartu ziren hasiera hartan. Donostiara joan ziren “Hazi eta ikasi” elkartearen ezagutzera eta bertan lana nola egiten zuten ikustera. “Donostiako parroki bateko etxabean egiten zituzten eskolak. Eredua gustatu egin zitzaigun eta hura erreferentziatzat hartuta, Zarauzko Udalak berak lagundu zigun elkarte ofizial bat sortu eta erregistratzen”, eranstean du Azkunek, eta hala sortu zuten Ikaslagun Irakaskuntza Laguntza Elkartearen.

Elkarteko kideak Zarauzko bost ikastetxeekin jarri ziren harremanean. Proiektua azaldu zieten, eta bertako arduradunekin elkarlanean hasi ziren ekimena aurrera eramaten eta horrelaxe jarraitzen dute uneotan ere. Ikastetxeak eurak dira ekimenean

parte hartzeko ikasleak hautatzen dituztenak. Zumetak azaltzen duen eran, bi baldintza bete behar izaten ditute: batetik, laguntza akademikoa behar izatea; eta, bestetik, era bateko zein besteko arrazoiak tarteko akademiarik edo bestelako laguntza-zerbitzurik ordaindu ezin izatea. Lehen Hezkuntzako 2. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa amaitu arterainoko ikasleak hartzen dituzte.

Hala, parrokiako lokaletan, astean hirutan —astelehenetan, astearteetan eta ostegunetan—, ikaskuntzarako laguntza-saioak antolatzen dituzte 17:00etan hasi eta 18:30 arte. Ikasleak, ordea, behin edo bitan joaten dira saioetara. Ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua ematen saiatzen dira, eta horrexegatik premisa nagusi batekin egiten dute lan: heldu boluntario bakoitzeko ezin dira egon hiru haur



baino gehiago, “eta bi baldin badira, hobe!”, dio Zumetak. “Ohiko geletan dauden kopuruekin ume asko galdu egiten da. Gure nahia da galtzen diren haur horiei begiratu eta esatea: ‘Goazen bide bat elkarrekin egitera. Zer nahi duzu?’; eta ikasleek esaten dizute: ‘Hau ikasi nahi dut’ edo ‘taula hauek ikasteko zailtasuna daukat’, edo ‘testu hau ez dut ulertzen’; eta laguntza ematen zaie zentzu horretan: ‘Zurekin nago’ esateko modu bat da”.

Horrexegatik dira inportanteak boluntarioak: bi hurrekin boluntario bat egon dadin saiatzen direlako beti eta horretarako jende asko behar da. Boluntario batzuk astean behin joaten dira saioretara, beste batzuk bitan eta badira hiru egunetan joaten direnak ere. Ikasleek, berriz, bi egunetan joateko aukera izaten dute, nahiz eta batzuk egun bakarrean joaten diren. “Zenbait umek asteko bigarren egunean bestelako jardueraren bat dauka: kirola, adibidez. Kasu horietan taldean egiteko jarduerari lehentasuna ematen zaio. Bestelako eginkizun sozial bat baldin badauka hari ematen zaio garrantzia, ez direlako laguntza akademikoa behar duten ikasleak soilik, eta errefortzu soziala ere ondo datorkielako”, argitzen du Zumetak.

Ikaslagun proiektuaren barruan, alderdi sozial eta ludikoari ere garrantzi handia ematen diote. Horrexegatik, saio bakoitzeko azken ordu erdian jolasak egin ohi dituzte: xakea, partxisa, kartak... ikasleek gustuko duten hori. Eta kanpoaldean

berdegune zabal bat ere badutenez, baloiarekin edota soka-saltoan ere ibiltzen dira. Guztiaren gainera, egitasmoaren arduradunek argi daukate ikasleek toki seguru eta lasai bat aurkitu behar dutela bertan. “Guk, hasteko eta behin, toki bat eskaintzen diegu; eta, horrekin batera, giroa. Arreta pertsonalizatua ere bai. Eta, guretzat horrek esan nahi du ikaslearen aurretik pertsona dagoela eta konfiantzazko harremanak eraikitzen saiatzen gara”, dio Azkunek.

Boluntario talde anitza

Hastapenean, jubilatutako irakasle taldea hasi zen boluntario lanetan, baina pixkanaka beste era bateko profila duen jendea ere ari da inguratzen proiektura: irakaskuntzakoetan ez bestelako lanetan ari diren pertsonak, irakaskuntzako ikasleak, bestelako gazte unibertsitarioak... gero eta anitzagoa da taldea eta horrek ere aberastasuna ematen dio Ikaslagun egitasmoari. Gainera, Azkunek azpimarratzen duenez, eurek artatzen dituzten haur eta gazteentzat oso garrantzitsua da era askotako helduekin egotea: “Guregana datozen ume gehienek, euren gurasoak kenduta, oso heldu gutxirekin dute harremana. Hemen era askotako helduak ezagutzen dituzte, baliteke konfiantzazko harreman bat eraikitzea, edota helduren batekin konektatzea eta hori sekulakoa da”.

Ikaslagunen giro lasaia eta konfiantzazkoa eraikitzen saiatzen dira

“Guregana datozen ume gehienek, euren gurasoak kenduta, oso heldu gutxirekin dute harremana. Hemen era askotako helduak ezagutzen dituzte, baliteke konfiantzazko harreman bat eraikitzea, edota helduren batekin konektatzea eta hori sekulakoa da”

“Konfiantzazko harremana eraikitzea, autoestimua lantzea, lan-ohiturak sustatzea... horiexek dira gure helburuak”

Iñaki Azkune

ESPERIENTZIAK: 'IKASLAGUN' EGITASMOA ZARAUTZEN



“Guk miraririk ez dugu egiten, baina guregana datorren umeak badaki astean bitan etortzeko toki bat daukala eta giro bat, gurekin harreman ona duela, seguru sentituko dela eta aurrera egiten lagunduko diogula. Guk txikitasunean egiten dugu lan eta hori abantaila handia da”

Mariaje Zumeta

eta horrek beste era bateko harremanak eraikitzeke aukera ematen die. Zumetak gaineratzen duenez, teoriarik, ikastetxeetan tutoreak egin beharko lukeen hori egiten dute Ikaslagun proiektuaren barruan boluntarioek. “Baina, askotan, eskoletan ez dago horretarako tokirik. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ari dira beste harreman mota batzuk eraikitzeke eta beste era batera jarduteko lanean, baina DBHn oso gutxi. Eta, ikasle asko galduta daude”. Hala erantzen du Azkunek: “Kontua da, institutuan zaudenean edukiak irakatsi behar direlako presiopean jarduten duzula lanean; hemen, berriz, ez. Askoz ere lasaiago aritzeko aukera daukazu eta horrek abantaila asko ematen dizkizu”.

Lehen egitekoa, etxerako lanak

Ikaslagun proiektuaren barruko saioetan egiten duten lehen ekintza praktikoa ikasleek dituzten etxerako lanekin laguntzea izaten da. Izan ere, egitasmoaren arduradunek dioten moduan, hurrengo egunean eskolara joandakoan, ikasle horientzat oso garrantzitsua izaten da etxerako lanak

eginda edukitzea, bereziki beren autoestimurako. Behin etxerako lanak amaitutakoan jarduera multzoa izaten dute aukeran Ikaslaguneko boluntarioek hainbat arlo lantzeko. Gainera, ikastetxeekin koordinatuta aritzen direnez, irakasleek emandako eginkizunak ere edukitzen dituzte. Lasaitasunez eta gertutasunez, baina konstantziarekin egiten dute lan Ikaslagunen, beste helburu bat lan-ohiturak finkatzea ere bai baita. “Konfiantzazko harremana eraikitzea, autoestimua lantzea, lan-ohiturak hartzea... horietxek dira gure helburuak”, zehazten du Azkunek. Eta, horrekin batera, gurasoekin ere lan egiten dute euren seme-alaben gaineko usteak eta aurreikuspenak landu ditzaten: “Gurasoek euren seme-alaben gaineko begirada positiboa edukitzea inportantea da eta kontziente izatea euren umeak ere gai direla aurrera egiteko eta gauzak ikasteko. Gurasoek espektatibak goran jar ditzaten saiatzen gara”.

Ikasleak eurak ere konturatzen direnean zenbat gauza egiteko gai diren, eta esfortzuarekin eta konstantziarekin, pixkanaka, aurrean dituzten

erronkak gaintitzen ari direla, beste urrats bat egiten dute aurrera. Eta, hain zuzen ere, Ikaslagun proiektuko boluntarioen helburuetako bat ere bada hori, ikasleak gaitzea eta ahalduntzea: “Dena kate bat da. Gai direla ikusten dute, pixkanaka lortu dutela erronka bat gaintitzea, etxerako lanak ere eginda eraman dituztela eskolara... ume hauen autoestimuan sekulako aurrerapausoa nabaritzen da”, azaltzen du Zumetak. Eta, horretarako, Azkunek gehitzen duenez, umeak onartua, maitatua, errespetatua... dela sentitu behar du: “Eta, egia da, ikasle gehienak nahiko gustura etortzen direla”. Amaitzeko hala dio Zumetak: “Guk miraririk ezin dugu egin, baina guregana datorren umeak badaki astean bitan toki bat daukala lasai etortzeko, gurekin harreman ona eraikiko duela, seguru sentituko dela eta aurrera egiten lagunduko diogula. Guk txikitasunean egiten dugu lan eta hori abantaila handia da”.

Ikaslagun proiektuko arduradunek dei egin nahi die Zarautz inguruko bizilagunei proiektuan parte hartzera. Norbaitek interesa balu eurekin kontaktuan jartzeko eskatzen dute.



Ikaslagun proiektua zenbakitan

Hauexek dira 2018-2019 ikasturtean Ikaslagun egitasmoak utzi dituen zenbakiak:

- **Boluntarioak:** 27 lagunek hartu dute parte. Horietatik erdiak inguru jubilatuak. Eta beste erdiak lan munduko profesionalak eta unibertsitateko ikasleak.
- **Ikasleak:** 52 inguru denera. Ikasle bakoitza astean bitan joaten da Ikaslagun proiektura, gehienera jota. Batzuk behin bakarrik ere bai, beste-lako jarduerak (adib. kirola) ere badituztelako eta haiei lehentasuna ematen zaielako.
- **Ordutegia:** astearteetan eta ostegunetan 17:00etatik 18:30era. Baliabideak tarteko, bi egun horietarako ikasle gehiegi zirenez, astelehenetan ere saioak egin dituzte ikasturte honetan. Hala, boluntario batzuk astean hiru egunetan joan dira ikasleei laguntza ematera; beste batzuk bitan; eta badira astean egun bakarrean joan direnak ere, bakoitzak ahal duenaren arabera hartzen duelako parte.
- **Maila:** Lehen Hezkuntzako 2. mailatik hasi eta DBH osoa amaitu arterainoko ikasleak hartzen dituzte.
- **Proiektuan parte hartuko duten ikasleen aukeraketa:** ikastetxeek egiten dute. Ikaslagunek herriko bost ikastetxerekin dauka harremana. Horrez gain, eskola kontseiluan ikasturte hasieran eta amaieran proiektuaren berri ematen dute Ikaslaguneko kideek.

EKARPENAK 1

'ZORION BAT, ZORION BI' URTEBETETZE ABESTIA

Etorkinentzako opari bat: euskaraz eta euren hizkuntzan zoriontzeko abestia

Jesus Markaide arrasatearrak urtebetetzeko abesti bat sortu zuen, baina ez etxekoei abesteko, lau haizetara zabaltzeko baizik. Zabaldunde hori egiteko garaian Euskal Herrian bizi diren etorkinak izan ditu gogoan bereziki, eta horiengana iritsi nahi izan du. Horregatik, 19 hizkuntzatarata itzulita dago abestia. Horrek aukera ematen du aldamenekoa bere hizkuntzan zoriontzeko. Eta horixe da egileak bilatzen duen azken xedea: etorkinengana gure hizkuntzarekin eta haien hizkuntzarekiko errespetuz hurbiltzea, elkarbizitza errazteko.



Euskal Herriko eskoletan gero eta etorkin gehiago daude eta askotan arazo modura ikusten da. Jesus Markaide arrasatearrak, ordea, aukera modura ikusi izan du hasieratik. “Etorkinekin harreman handia izan dut azken urteetan, higiezin agentzia batean lan egin dudalako. Hartu-eman horretan beraien hizkuntzari buruzko jakin-mina areagotu zait eta galdetu egin izan diet: ‘Zer esan nahi du hitz honek? Nola esaten da hau?...’ Ez direla integratzen ikusten dut eta integrazio horretan laguntzeko nire aletxoak jarzea erabaki nuen”. Aletxo hori ‘Zorion bat’ urtebetetzeko abestia da. “Helburua apala da, euskal jatorriko zorion-abesti baten itzulpen partziala-

rekin, gure hizkuntza ikasle etorkinen hizkuntzara hurbiltzea. Horrela, euren kulturekiko eta tradizioekiko dugun erabateko errespetuarekin, gure hizkuntza gerturatu nahi diegu. Izan ere, gure hizkuntza denontzat izatea gura dugu, eta inor gutxietsi barik, komunikaziorako gure oinarriko erreminta duguna”.

Euskaraz sortu zuen abestia, eta ondoren 19 hizkuntzatarata itzuli. Hainbat eta hainbat eskoletan ezagutu dute abestia eta ongi iruditu zaie proposamena; Antzuolan, Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Beasainen, Bergaran, Elorrioren, Eskoriatzan, Oñatin, Ordizian eta abar, eta arrakasta eduki duela dio Markaidek: “Ume etorkinekin beren hizkuntzan abestea eta zorion-

tzeta asko gustatzen zaie, emozionatu egiten dira eta gurasoak ere bai”. Gainera, eskolentzat ere interesgarria dela uste du: “Hemengo jendeak konturatu behar du etorkinek euren hizkuntza daukatela, gurea bezain zaharra eta hitzun gehiagok hitz egiten dutena, agian. Errespetua zor diegu, eta eurak guri. Eta errespetua da ‘zuk erakutsi niri zure hizkuntza eta nik erakutsiko dizut nirea’. Abesti hau horretarako tresnatxo bat da”.

Horixe da, hain zuzen ere, Markaidek eskaini nahi izan duena: tresna bat, erreminta bat, etorkinengana hurbiltzeko eta elkarbizitza bideratzeko. Errespetuz eta begirunez tratatzeko lagungarri izan daiteke abesti hori. “Beraiek euskara ikasiko dute hona bizitzera etorri direlako, eta guk haien hizkuntzako hitz batzuk ikas ditzakegu haiengana gerturatzeko. Horrela, gerturatu egiten gara eta hori egin beharreko zerbait da. Zeren etorkinak hemen daude, hemen gertuko dira eta elkarrekin bizi beharra daukagu”, argudiatzen du Markaidek. “Beraiek ilarako azkenak direla pentsatzen dute eta hori aldatu behar dugu. Garrantzia eman behar diegu, berdinetik berdinerla erlazionatu. Abiapuntu hori garrantzitsua da integratzeko eta elkarrekin bizitzeko”.

Gauza bera ikusten du eskoletan ere. Etorkinekin arazoak ikusteko partez, positiboki ikusten hasi behar dugula uste du. “Eskoletara iristen direnean ‘egokituko’ direla pentsatzen da, mezu horrekin subliminalki gu maila altuagoko kultura batekoak garela adierazten zaielarik. Eta hori hasiera txarra da, horrela arazoak sortzen baitira”. Ikuspegi positiboa, aukera berriak eta pentsamolde irekia behar direla azpimarratzen du Markaidek. “Euskal Herria industria herrialde bat da, produktuak saltzen ditu eta nori? Gaur egun edozeini. Horregatik, agian urdu hizkuntzan hitz eginez saldu beharko dugu bihar, edo suahiliz edo txinatarrez etzi. Pentsamolde irekia eskatzen du horrek”.

Ahoskera lagun; ahoskera landu

Irekiera horretan laguntzeko sortu duen abestia 19 hizkuntzatarata itzulita dago partzialki, zati batzuk, alegia.

Orain, beste urrats bat egingo da: Aretxabaleako Kurtzeberri eskolako haurrek abestia hizkuntza horietan grabatuko dute eta www.mondra-berri.eus webguneak denen eskura jarriko du grabaketa. Horrela, nahi duenak entzungai izango du. “Haur etorkin berri bat etortzen delarik, irakasleak eta ikasleek haren hizkuntzan entzun dezakete abestia eta gelan denek kantatu ondoren”.

Grabatuta egoteak badu beste abantaila bat: ahoskera. Hizkuntzen ahoskera ere garrantzitsua da eta abestia entzuteak nola ahoskatzen den jakiteko aukera ematen du.



‘Zorion bat zorion bi’ abestia hainbat hizkuntzatan

Euskaraz

Zorion bat zorion bi zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Aneri

Zure egunean denok poz pozik
Ondo pasatu ta abesti hau hartu opari

Zorion bat zorion bi zorion ugari
Zorion bat zorion bi bihotzez Aneri

Txoriak milaka datoz kantari
Bere txi-ooak dakarzkite erregali

Zorion bat zorion bi zorion ugari
Zorion bat zorion bi bihotzez Aneri

Arabiar-hassanieraz

Ayd milad sayd Ayd milad sayd
Mohamed Ayd milad sayd
Zorion bat zorion bi gure Mohamedi

Berbereraz

Sanasaída sanasaída
Mohamed sanasaída
Zorion bat zorion bi gure Mohamedi

Kantondar txineraz

Sun yat fai lok Sun yat fai lok
Deki Sun yat fai lok
Zorion bat zorion bi gure Deekiri

Wolofera (Senegal)

Debeneti debenetu zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Magazi

Nepalera

Subhakamana Subhakamana,
zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Suboti

Bulgarietaz

Chestit rozhden den
Chestit rozhden den zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Angiri

Ukraineraz

Neme rojdenyá Neme rojdenyá,
zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Ivani

Polonieraz

Kazli urogin kazli urogin,
zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Milani

Indieraz

Naman den mubarak knaman den
mubarak, zorion ugari
Zorion bat zorion bi gure Milani

Urduz (Panjanbeko pakistandarrak)

Salgirah Mubarak Salgirah Mubarak
Mohamed Salgirah Mubarak
Zorion bat zorion bi gure Mohamedi

Errumanieraz

Ia multi ani ia multi ani
Pavel ia multi ani
Zorion bat zorion bi gure Paveli

EKARPENAK 2

EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA

Gotzon Barandiaran: “Bost urteko haur bat etor dakizuke Alemaniako pintore baten erreferentziarekin, baina gero ez daki nor den Jose Luis Zumeta”

Euskal kulturaren transmisioaz eta ezagutza kaskarrak kezkatuta mintzo da Gotzon Barandiaran idazle eta kulturgilea. Sarri, euskal gizartea hizkuntzarekin tematuta egon den arren, Barandiararen argi du hizkuntza bat ez dagoela normalizatzerik kulturarik gabe, eta kultura ezin dela normalizatu hizkuntza ez badago normalizatuta. “Gurean horren zapalduta, horren baztertuta, horren gutxiagotuta... dagoen hizkuntza batek gutxiagotutako, baztertutako eta zapaldutako kultura bat dakar. Horrek dakarrena da gure kultur sistema eta ekosistema ez direla osasuntsuak”.



Zuzenean euskal kulturaren transmisioari helduz, zein da gaur egungo egoera? Etena egon dela esaten duzue? Hain sakona da?

Hezkuntza arautuan, guk dakigula, euskal kulturgintzaren transmisioa ez dago bermatua. Besterik da, egunerokoan, hezitzaileek, andereñoek, maisu-maistrek... asko erabiltzen dituztela kultura edukiak. Baina ez dituzte lantzen kultura edukiak curriculumeko ezinbesteko gai bezala, bere horretan. Kulturgintzako edukiak beselako helburu batzuk lortzeko izaten

dira. Adibidez, literaturaren arloari helduz, hizkuntzaren trebakuntzarako soilik erabili izan da urteetan literatura. Eta oso bitarteko baliagarria da, eta jarraitu behar da horrela erabiltzen ere, baina ez horrela bakarrik. Literatura irakurtzen irakatsi egin behar da, eta idazten irakatsi egin behar da. Eta antzekoa gertatzen da gainerako kultura adierazpideekin ere.

Kulturgintzari eta haren transmisioari buruz ari zarenean, zertaz ari zara zehazki?

Kulturgintzari buruz ari garenean, kultura adierazpideei buruz ari gara: arte plastikoak, musika, literatura, bertsolaritza, antzerkia, dantza, komikigintza... sormena bere barneko oinarri duten adierazpideak dira. Jakintzaren eta esperientziaren uztarketa gisara ulertzen dugu transmisioa. Euskal kulturaren historia ezagutu egin behar da, baina ez da nahikoa horrekin. Guk ahalegindu egin behar dugu ezagutza horretatik esperientziarako saltoa egiten. Alegia, sortzen. Pertsona batek jakin behar du bere sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko modu asko egon daitezkeela. Pertsona baten garapen integralerako, oso inportantea da sortzea. Eta kultura adierazpideen bitartez, pertsonari tresnak ematen dizkiogu modu desberdinetara sortzeko: hitzez, irudiz, gorputzez... normalean sormena ez baita zerotik hasten; lehenengo, ezagutu egin behar da. Hau da, lehenengo, zaletu egin behar duzu. Lehenengo, eredu bat eduki behar duzu, norbait ikusi, entzun, ukitu, sentitu... duzulako: “Hara! Nik agian horrelako zerbait egin nahiko nuke”, edo “Nik horrelako zerbait erabil dezaket nire gogoeta eta sentimenduak adierazteko”. Horregatik, ezagutza eta esperientzia uztartuta ulertzen ditugu guk.

Ezagutza eta esperientzia aipatu dituzu, baina tartean legoke zaleztzea, ezta? Zeren gerta baitaiteke, sortzaileak bai, baina sortutako hori kontsumituko duen inor ez egotea. Normalean, sortzailea zalea da. Idazlea irakurlea da lehenengo eta behin. Edo bertsolariak, ezer baino lehen bertsoak entzun egin ditu, eta beste batzuk aditu ditu kantuan. Askotan galdetzen dugu, esate baterako, zertarako balio ote duen gure umeek Mikel Laboa ezagutzeak. Hasteko, balio du umeak hori entzun dezan eta erabaki dezan gustatzen ote zaion edo ez, eta pentsa dezan, berak ere antzeko zerbait egin nahiko balu, baliagarria zaion edo ez. Baina gutxienez ezagutu dezala, bestela, etengabe euskaldunak ez diren erreferentziak etorriko baitzaizkio... Horretarako, ez daukate inolako eraginik egin beharrik.

Hortaz, agian, erreferentziak ere falta dira?

Badaude, baina ez ditugu ezagutzen. Esate baterako, zu joan zaitezke Euskal Herriko eskola batera liburuaren egunaren aitzakiarekin, eta hainbat horma-irudi ikus ditzakezu eskolako pasabideetan idazleen izen eta lanekin, eta, baliteke horien artean euskaldun bat bera ere ez egotea, edo bakarren bat. Edota, bost urteko haur bat etor dakizuke AEBko edota Alemaniako pintore baten erreferentziarekin, baina, gero, ez daki nor den Jose Luis Zumeta, edo Itziar Okariz, edo Eider Eibar. Hori gabezia handia da, eta gaur egun sarri samar gertatzen da. Askotan irakasleei prestakuntza eta ezagutza falta zaizkielako; baina etxe giroko transmisioan ere izugarrizko etena dago. Segur aski, urte askoan beste helburu batzuk izan ditugulako — adibidez, kalitatezko gauzak egitea, eta hori ere inportantea da — eta transmisioan despistatu egin garelako. Gaur egun guraso direnak baliteke orain dela 20 urte oso musikazaleak izatea eta orduko taldeak eta doinuak ezagutzea, baina ez dakite gaur egun zer musika mota egiten den. Eta, hortaz, eten handia gertatu da horretan. Ezagutzen dituzte garai hartako erreferentziak, baina ez gaur egungoak.

Hortaz etena dago hezkuntza arautuan ez ezik, familietan ere.

Bai, eta horretan ere ez dakigu zeri oratu, ez daukagulako norengana jo. Iaz Eusko Jaurlaritzak eta Elkarrek Siadecori eskatuta argitaratu ziren datuen bidez, jakin dugu gaur egun guraso diren horietatik irakurtzen dutenek ez dutela euskaraz irakurtzen nagusiki eta ez dutela euskarazko musika entzuten nagusiki. Irakurtzen dutenek erdaretan irakurtzen dute, eta musikarekin ere gauza bera gertatzen da.

Euskararekin gaude edo egon gara arduratuta eta ez horrenbeste kulturarekin?

Bai. Eta, neurri batean, normala da. Baina hizkuntza bat ez dago normalizatzerik kulturarik gabe, eta kultura ezin da normalizatu hizkuntza ez badago normalizatuta. Gurean horren

“Euskal kulturaren historia ezagutu egin behar da, baina ez da nahikoa horrekin. Guk ahalegindu egin behar dugu ezagutza horretatik esperientziarako saltoa egiten. Alegia, ikasleei sortzeko bitartekoak eskaintzen”

“Pertsona baten garapen integralerako oso inportantea da sortzea. Eta kultura adierazpideen bitartez, pertsonari tresnak ematen dizkiogu modu desberdinetara sortzeko: hitzez, irudiz, gorputzez... Normalean sormena ez baita zerotik hasten; lehenengo, ezagutu egin behar da, eta zaletu egin behar zara. Eta horretarako eredu bat eduki behar duzu: norbait ikusi, entzun, ukitu, sentitu...”



zapalduta, horren baztertuta, horren gutxiagotuta... dagoen hizkuntza batek gutxiagotutako, baztertutako eta zapaldutako kultura bat dakar. Eta hori da gaur egun daukagun egoera, nahiz eta batzuek nahiko duten diagnosis edertu, eta badakigu oso aurrerapauso handiak eman ditugula, baina egoera dena da. Gure hizkuntza ez da ofiziala bere lurraldean, eta horrek esan nahi du kultura ere ez dela ofiziala bere lurraldean. Horrek dakarrena da gure kultura sistema eta ekosistema ez direla osasuntsuak. Eta horretan, erabat lotuta daude hizkuntza eta kultura.

Eta indargunerik edo argi-izpirik ikusten duzu?

Jende asko ari gara gauza asko egiten, eta hori indargune bat da. Gainera, oso kalitate oneko gauzak ari gara egiten. Hezkuntzari dagokionez, adibidez, esperientzia asko daude merkatu logikatik eta logika kapitalistatik kanpo lan egiten dutenak. Askotan, horri ez diogu erreparatzen edo ez dugu balioan jartzen, baina, kultura batentzat, oso inportantea da hori, eta beste indargune bat litzateke hori ere. Bestalde, antolaketa ere oso maila altukoa da, eta hori oso inportantea da. Horretan

guztitan falta zaigun gauza bakarra da elkartzea; falta zaiguna da helburu kolektibo bat. Helburu kolektibo hori adostuko bagenu eta urtetan eta urtetan pilatzen ari garen esperientzia hori norabide berean jarriko bagenu, emaitza izugarriak edukiko genituzkeela uste dut.

Horretarako, zer egin daiteke? Eskolek nola joka dezakete? Irakasleek zer erreminta dituzte eskura?

Kultura ekosistema bezala hartzen badugu, zalea, sortzailea, antolatzailea, komunikabidea, eta hezkuntza (edo transmisioa) etengabeko elkarreraginean daude. Zirkulu batean egonik, elkar elikatuko balute bezala da. Hori horrela dela ulertzen badugu, horretan transmisioak duen garrantziaz jabetuko ginateke, baina konturatuko ginateke, baita ere, transmisioaren ardura ez dela bakarrik eskolarena; transmisioaren ardura badutela kazetariak ere, edota antolatzaileek, sortzaileek, zaleek, familiek... Ama edo aita batek kontzientzia hartu behar du, eta jakin behar du, berak irakasten ez badio umeari bere hizkuntzan kultura bat badagoela, kultura produkzio bat badagoela eta historia bat badagoela, ume horrek ez duela kultura horre-

tako ezer ikasiko, baina beste kultura batzuetako erreferentziak jasoko dituela. Jasoko ditu kultura espainoiaren erreferentziak, frantsesarenak, ingelesarenak, anglosaxoiarenak, estatubatuarrenak... eta hortik elikatuko da. Eta ez da elikatuko soilik aisialdirako edo denborapasarako, baizik eta, horren arabera, mundu ikuskera oso bat eraikiko du. Ez da erraza, baina uste dut bide bat hori dela: kontzientzia hartzea eta ekosistema gisara funtzionatzen saiatzea.

Gure esperientziak erakusten digunez, irakasle bakoitzaren arabera da kulturaren lanketa eskoletan. Norbanakoaren zaletasuna, gogoia, ezagutza... sartzen da jokoan. Sortzaile lanetan edo kulturgintzan dabilen bati baino gehiagori entzungo diozu esaten irakasle bat izan zuela erreferentea eta hark piztu ziola kulturarekiko grina. Baina, noski, ez dugu uste kulturaren ezagutza, lanke-ta, grina... norbanakoaren esku utz daitekeenik. Eta, hori, oro har, eskola denetan gertatzen da berdin.

Beraz, kulturgintzaren transmisioa zoriaren arabera da? Alegia, haur bati etxean transmititu diezaiokete, baina beste bati ez; irakaslearen

arabera eskolan landu dezakete haur batzuek, baina beste batzuek ez...

Bertsolaritzaren esperientzia da, adibidez, oso kontuan hartzekoa. Bertsolaritzak bere geroa, edo behintzat etorkizun hurbila bermatu baldin badu, izan da bertsozaleak eta bertsolariak ari direlako bertsolaritza irakasten. Hortaz, beste diziplina batzuekin ere, zergatik ez dugu egiten gauza bera? Hezkuntza arautuan gutxienez, zergatik ez dute parte hartzen kulturgintzan edo kultura adierazpide bata zein bestea ofizio duenak adierazpide horren transmisioan eta irakaskuntzan?

Denentzat badago tokirik?

Zergatik ez? Lantzeko modu asko egon daiteke.

Bertsolaritza antolatzen den bezala antolatu behar balira kultura adierazpide guztiak...

Kontua da zeri ematen diogun garrantzia. Zergatik ematen dituzte gure umeek horrenbeste ordu gai jakin batzuk ikasten, eta zergatik hain gutxi beste batzuk ikasten? Hori, nire ustez, oso eztabaidagarria da. Gainera, herri bezala benetako apustua egiten baldin baduzu hezkuntza edo heziketa integral baten alde, kulturgintza landu behar duzu, eta sormena landu behar duzu. Bestela, beren kabuz ezer egiteko kapaz ez diren pertsonak sortzen dituzu. Eta sormenak gaitasun bat ematen baldin badizu, gaitasun hori da inoren zain egon gabe zeure kabuz egitekoa. Beraz, zergatik ez diegu hori erakutsiko gure umei?

Ez dago sortzailerik zerotik hasten denik. Umeari edo gazteari bere bidea egiten utzita ere, nonbaitetik edan beharko du. Eta, guk herri honen kulturak duena eskura jartzen ez badiogu, beste nonbaitetik hartuko du. Zergatik hartu beharko ditu beste kultura batzuetakoak eta ez bere kulturakoak? Nik ez diot ikusten zentzurik zure kultura ezagutu baino lehen Japoniako kulturaren erreferentziak edo AEBkoarenak jasotzeari.

Hortaz, haurren heziketan parte hartzen duten askotariko entitateen ardura kontua ere bada.

Noski. Adibidez, irakasleek musika lantzeko ez baldin badakite badutela *badok.eus* bezalako tresna bat, edo literaturarako *armiarma.eus* dagoela, edo *dantzan.eus...* hori gabezia bat da. Eta hori gertatzen da ez dugulako ekosistema bezala jokatzeko. Gainera, ez daukagunez herri bezala helburu kolektiborik, zaila da ezer lortzea. Egoera horren aurrean, gure xedea da eskola-komunitateari esatea sortzaileek ekosistema horretako parte sentitzen garela eta heziketa prozesuetan parte hartzeko prest gaudela: gure lana erakutsiz, gure esperientzia partekatuz, gure ezagutza helaraziz...

Adibiderik jar dezakezu?

Adibidez, Nafarroan, “Musikariak ikastetxeetan” izeneko esperientzia eraman dugu aurrera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak egindako deialdi baten bidez, eta oso emaitza onak eman ditu. 23 musikari aritu dira ordu eta erdiko saioak eskaintzen ikastetxeetan. 86 saio egin dituzte denera, D eta E ereduak 40 ikastetxe baino gehiagotan. Oso balorazio onak izan ditu proiektuak, bai ikasleen aldetik eta baita irakasleenetik ere. Musikariak ordu eta erdian euren sormen prozesua nolakoa den azaldu dute, kanta baten adibidetik abiatuta. Horrekin batera, euskal kantagintzaren oinarri batzuk ere eman dituzte, eta oso emaitza ona izan du. Hortaz, horrelako egitasmoak zergatik ezin dira iraunkortu eta sistematizatu?

Baina lehen ere kulturgintzaren transmisioa banakoan esku zegoen, eta hala ere, euskal kulturaren ezagutza, zaletasuna... handiagoa zen.

Kontua da kulturak 90eko hamarraldian askoz ere balio sozial handiagoa zuela, eta balio hori galtzen joan dela. Kultura helburu kolektibo handiago baten parte zen eta gaur egun ez da hala. Horrexegatik, balioa galdu du. Eta balioa galdu duenez, transmisioan ere garrantzia galdu du, eta kontsumoan nahiz atxikimenduan ere bai, lehen kulturgilea helburu kolektibo baten parte sentitzen zelako, eta gaur egun ez.

Behin eta berriz aipatu duzu sor-

menaren garrantzia. Sortzaileak sortzea garrantzitsua izango da, baina askotan entzun izan da Euskal Herrian sortzaile asko dagoela baina ez zalerik edo kontsumitzailearik.

Gure erronka nagusia orain ez da sortzaile gabezia, baizik eta zale gabezia. Guk orain daukagun premiarik handiena da zaleak sortzea. Hemendik 30 urtera zaleen kopurua hirukoiztea izan behar genuke helburu; bestela, oso zail daukagu irautea. Gerta dakigukeelako hemendik 30 urtera profesionalik gabeko kultura bat edukitzea, eta hori heriotza da hizkuntza batentzat eta kultura batentzat.

Eta nola sortu zaletuak?

Zaleak sormenaren eta esperientziaren arteko uztarketatik sortuko dira. Eta ez gara aldarrikatzen ari gure umeen % 100ek izan behar dutenik sortzaile. Baina, gutxienez, aukera izan behar dute sormenak ematen diena beren gorputzean bizitzeko eta sortzaile izatea zer den ezagutzeko. Eta gaur egun ematen diegu aukera hori? Haur Hezkuntzan etengabe aritzen dira dantzan, margotzen, kantuan, antzerkia egiten... baina, Lehen Hezkuntzara iristen direnetik aurrera, askoz ere gutxiago. Eta pena da, jokabide horrekin, gure haur eta gazteei aukerak murriztu egiten baitizkiegu.

Adibidez, alde handia dago musika talde bat diskoan entzutetik musika talde hori zuzenean ikustera edo musika talde horretako partaideekin aurrez aurre egotera. Horrez gain, nik uste dut bai hizkuntzaren eta bai kulturaren transmisioari dagokionez, haurrei eta gazteei horien bueltan sozializatzeko aukerak eman behar dizkiegula.

Sozializatzeko paradigma aldatu du sareak. Internetek eta bere adierazpide guztiek —telefonoak, tabletak, ordenagailuak...— aldaketa handia ekarri dute, eta euskal kulturak hor ere egon behar du. Herrietatik hasita Interneteraino. Sarea da bat, baina plaza fisikoak bertako kulturarekin bete behar dira, umeek euren herriaren euskaraz ari diren sortzaileak ikusteko eta entzuteko aukera eduki dezaten.

GALDEIDAZU

NOLA JAR DAITEZKE PRAKTIKAN KIDKOEK ARTEKO IKASKUNTZA ETA KIDKOEK ARTEKO TUTORETZA?

Maiz entzun izan da besteei irakastea modu aproposa izan daitekeela norberak ikasteko. Gure eguneroko bizitzan, eta baita gure irakaskuntza-praktikan ere, irakasleok maiz izaten ditugu esperientziak, zeinetan gure ikasleei irakatsiz geuk ikasten dugun. Parte-hartzean oinarritzen diren irakasteko eta ikasteko dinamiketan, eta batez ere lankidetzako ikaskuntzan oinarritzen diren dinamiketan, ikasleek elkarrekin lan egiteko aukerak proposatzen dira, eta gai edo kontzeptu bat errazago ulertzeko gai diren ikasleek beren ikaskideei azaltzen diete. Baina gai al dira benetan gure ikasleak beren ikaskideei irakatsiz ikasteko? Irakasleok gai horren inguruan hausnarketa egitea gustatuko litzaidake. Izan ere, nahiko egoera paradoxikoa izango dugu aurrez aurre. Alde batetik, konbentzimendu osoz diogu lankidetzako ikaskuntza gure ikasgeletarako beharrezko estrategia metodologikoa dela, eta, Johnson D., Johnson RT. eta gainerako autoreek azpimarratzen dutenez, horixe da hezkuntzaren psikologian gehien ikertu den gaia; era berean, ebidentzia zientifiko gehien eta babes zabalena duen gaia ere bada. Beraz, dakigunez, lankidetzako ikaskuntza metodologia egokia da aniztasunari erantzuteko; ikasleen arteko desberdintasunak onartzeare-



DAVID DURÁN

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea



kin batera, ikasleen arteko desberdintasunak erabiltzen dituelako ikasgeletarako aukeratzat. Badakigu taldean lan eginda bakarrik lor daitezkeen gaitasun sozial konplexuak garatzen laguntzen diela gure ikasleei lankidetzako ikaskuntzak, eta, gainera, badakigu lankidetzako ikaskuntza erabilgarria dela gure ikasleentzat, eta batez ere besteak desberdinak diren egoeretan baliagarri izango zaiela bizitzan zehar. Ekonomia Lan-kidetzako eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) eta antzeko erakundeak diote taldean lan egitea, eta batez ere desberdinekin lan egitea, oinarritzko kompetentzia izango dela XXI. mendeko jendartearentzat.

Hori guztia badakigu, eta horregatik aurkezten digute Johnson & Johnson-ek lankidetzako ikaskuntza termino arrakastatsu moduan. Baina, aldi berean, bada beste autore bat, Yael Sharan, hain zuzen, 1960ko hamarkadatik ikasketa-praktika hauek ikertzen diharduena, eta, hark dioenez, lankidetzako ikaskuntza oso pedagogia baliotsua da, baina, aldi berean, baita gatazkatsua ere. Eta hainbat arrazoi dira seguruenik gatazka iturri: irakasleen prestakuntza izan daiteke, adibidez, edota baliteke, baita ere, nolabaiteko proposamen kontraktual bat izatea, bakarkako lanean, lan lehiakorretan, horren erroretako sistema baten barnean.

Baina, gure lantaldearen ikuspuntutik, bada, era berean, irakasle, ikasle eta guraso talde handi baten buruetan dagoen beste problematika bat; honetan datza: lankidetzako ikaskuntza ondo datorkie zailtasunak dituzten ikasleei, baina ez hain ondo gaitasunak dituzten ikasleei. Informazio asko daukagu, eta asko ikertu da; batez ere, hezkuntzaren psikologian pertsona bati laguntza pedagogikoa eskaintzen zaionean nola ikasten duen ikertu da; baina gutxi ikertu da beste batzuei laguntza pedagogikoa eskaintzen dien pertsona batek nola ikasten duen. Hori dela eta, ideia hori ulertzeko halako erresistentzia bat aurkitu izan dugu maiz. Horregatik, badira urte batzuk proiektu horren inguruan lanean ari garela, eta hauex da gure galdera: ikasi al daiteke besteei irakatsiz? Guk, irakasleok, irakaskuntzaren profesional gisa, izango ditugu esperientziak zeinetan irakasteak ikastea ahalbidetu digun, eta, horrekin batera, komeni litzateke irakatsiz ikastearen inguruko ebidentzia zientifikoak ere errepatatzea, irakasleontzat ere baliagarriak direlako ebidentzia zientifikoak eta ikasgelara eramango ditugun erabakiak ebidentzia zientifikoetan oinarritzea garrantzitsua izango delako. Izan ere, nahikoa lan badugu lehen ere irakasleok, ebidentzia zientifiko sendorik gabeko erabakiak praktikan jartzen aritzeko. Azter ditzagun, beraz, ebidentzia zientifikoaren arabera, irakatsiz ikasteak izan ditzakeen aukerak eta dituen mugak, hezkuntza-arloan parte-hartzean.

Irakatsiz ikasteko hainbat aukera

Bada ikerketa multzo bat, non ikasleei esaten zaien ondoren besteei irakasteko ikasi behar duten, nahiz eta gero benetan ez duten irakaspena praktikan jarriko. *Expectancy* teoria deitu izan zaio horri, eta norberarentzat ikastearen aldean, kalitate handiagoko prozesu kognitiboak lortzen dira. Horrez gain, lotuta dago ikasteko motibazio handiagorekin ere. Izan ere, besteei azaldu behar diegula pentsatuz ikasten dugunean, materiala berrikusten dugu, garrantzitsuena zer den eta bigarren mailakoa zer identifikatzen dugu, ilustrazioak

bilatzen ditugu, adibideak... Eta horrez gain, badira arrazoi gehiago ere, emozioei lotutakoak. Besteei irakasteko ikasten dugunean, ondo ikasten dugu, eta ondo dakigu hori irakasleok, badakigulako ikasleek erantzuten jakingo ez dugun galderaren bat egin diezaguketela. Eta presio motibagarri horrek ere lagundu egingen du hobeto ikasten. Baina eraman al dezakegu esperientziaz hori gure ikasgeletara? Gure ikasleei proposa diezakegu besteei irakasteko ikas dezatela, baina gero ikasitakoa azaltzeko aukerarik izan gabe? Hori egin dezakegu behin, edo bitan, asko jota. Hirugarrenean, dagoeneko ez du funtsik izango. Baina badira teoria hori ikasgeletara eramateko zenbait praktika jakin. Esate baterako, Katalunian ideia horretan oinarritutako esperientziak izaten ari dira zenbait ikasgeletan. Ikasleek hainbat galdera zientifiko planteatzen dituzte, eta, binaka, bideo didaktikoak sortzen dituzte, ulermeneko askotariko galderekin. Horrela, beste ikasle batzuek erabiliko duten material didaktikoa sortzen ikasten dute ikasleek. Haiek dira ikasten dutenak, material hori sortzen ari diren prozesuan, nahiz eta gero erabiliko den ziurtasunik ez izan. Dinamika hori oso ohikoa da sarean, eta *Expectancy* teorian oinarritutako ikaskuntzaren adibide ugari ditugu youtuben, esaterako.

Bada bigarren esperientziaz talde bat, zeinean, besteei irakasteko ikasteaz gain, aukera bermatzen zaien irakaste hori benetan gauzatzeko; eta, horregatik, hobeto ikasten dute. *Audientziaren efektua* deitzen zaio horri, eta entzungo dizun jendea edukitzean datza. Honako adibide honetan uler daiteke teoria honetan frogatzen dena: gure seme-alabek hurrengo egunean ikasgelan azaldu behar duten zerbait guri azaltzen digutenean, esaterako. Gure seme-alaben helburua ez da guk ikastea, baina bai gu audientzia bezala erabiltzea. Audientziaren funtzio horrek ideiak ozen esatea ahalbidetzen duenez, ideiak berrantolatzeak aukera ematen du. Audientzia baten aurrean azalpenak egitera mugatzen da bigarren multzo hori, baina audientzia hori pasiboa nahiz aktiboa izan daiteke. *Expect-*

Besteei irakasteko ikasten dugunean norberarentzat ikasten dugunean baino kalitate handiagoko prozesu kognitiboak lortzen ditugu. Hori lotuta dago ikasteko motibazio handiagorekin ere. Izan ere, besteei azaldu behar diegula pentsatuz ikasten dugunean, materiala berrikusten dugu, garrantzitsuena zer den eta bigarren mailakoa zer identifikatzen dugu, ilustrazioak bilatzen ditugu, adibideak... Eta horrez gain, badira arrazoi gehiago ere, emozioei lotutakoak.

tancy tipologia baino aberatsagoa da, benetan horretarako aukerarik izan gabe zerbait azaldu behar duzulako ikastea baino hobea delako.

Hirugarren ikerketa-esparruak ere audientzia baten aurrean ideiak azaltzearekin du lotura, baina, kasu honetan, ikasitakoa gure audientziaren behar eta lehentasunetara egokituko litzateke. Ikerketa-esparru horretako ikertzaileek, kidekoen arteko tutoretza-kasuak ikertu zituztenean, ikusi zuten soilik jakintza esatera mugatzen ziren ikasleek -berdin zekitena edo ikasitakoa- ikasteko aukerak galdu egingen zituztela. Aldiz, jakintza eraldatzen zutenek, ikaskidearekin eraikitzen zutenek, horiek bai ikasten zuten. Beraz, badugu hor mugatzen jada. Ikasgeletan, ikasketaren erritmo desberdinak ditugu, eta dugun aniztasun psikopedagogikoaren parte da hori. Eta ikasketarako erritmoen aniztasun horri erantzuteko, askotan egingen duguna da lehenago ikasi duen horri eskatu bere ikaskidea-

Azalpenak ematen ditugunean eta gure audientziari denbora ematen diogunean, informazioarekin jakintza eraikitze eta galdera konplexuak egiteko abagunea irekitzen dugu. Kidekoen arteko tutoretza-kasuetan, modu honetan lan eginez irakasten ari den ikasleak ere ikasteko aukerak izateko egoerak sortzen ditugu. Denbora eta laguntza eskainiz, ikasten ari denak galdera konplexuak egin ahal izango ditu, eta, beharbada, ikasle tutoreak edota irakasleak ez du jakingo erantzuten. Galdera horietatik abiatuta, ez dakiguna onartu eta ikasketarako helburu bat finkatuko dugu, talderako baliagarria izango dena.

rengana joan eta azaltzeko. Baina ikasle horrek ikaskidearengana joan eta ikasitakoa errepikatu baino ez badu egiten, ikasle horrek ikasteko dituen aukerak, dakienean sakondu ahal izateko aukerak, galdu egiten ditu. Horregatik, eta muturrera jota, bigarren aldian eskatzen diogunean, aitzakiaren bat jar diezaguke, eta hirugarrengoa, baliteke oraindik lanean ari den itxurak egitea, eskatu ez diezaiozun. Zer egin dezakegu ikasle horrek oraindik lortu beharreko helburu oinarritzora iristea lortu ez duen ikaskide horri lagunduz berak ere ikasteko aukerak izan

ditzan? Beste hitz batzuekin azaltzera gonbida dezakegu, beste adibide batzuekin, ilustrazioak bilatuz, lagunari arazoa non dagoen galdetuz, ikasitakoa eraldatuz lagunari non lagundu diezaiokeen galdetuz...

Bada beste ikerketa-arlo bat, azalduz, eztabaidatuz, ikas dezakegula azpimarratzen duena. Azalpenak ematen ditugunean eta gure audientziari denbora ematen diogunean, informazioarekin jakintza eraikitze eta galdera konplexuak egiteko abagunea irekitzen dugu. Kidekoen arteko tutoretza-kasuetan, modu honetan lan eginez irakasten ari den ikasleak ere ikasteko aukerak izateko egoerak sortzen ditugu. Denbora eta laguntza eskainiz, ikasten ari denak galdera konplexuak egin ahal izango ditu, eta, beharbada, ikasle tutoreak edota irakasleak ez du jakingo erantzuten. Galdera horietatik abiatuta, ez dakiguna onartu, eta ikasketarako helburu bat finkatuko dugu, talderako baliagarria izango dena. Galdera konplexuez mintzo garenean, jakintza hori beste testuinguru batera, ikasleen interesetara edota hasieran aurreikusi gabeko helburuetara eramateko baliagarriak liratekeen itaunez ari gara. Zentzu horretan, hiruko formula gertatzen da askotan elkarriketa horretan. Ikasle tutoreak hasten du elkarriketa, eta galderak formulatzen ditu; ikasle tutoratuak erantzuten du, eta feedbacka eskaintzen dio; une batez, elkarlaneko fase batean murgilduko dira, eta, une horretatik, elkarrekin jakintza eraikitzen hasiko dira. Elkarrekin erantzunak hobetzen ari dira, eta elkarrekin ikasten ari dira, biak.

Hori guztia ebaluazio batekin amaituko da, eta, zentzu horretan, kidekoen arteko ebaluazioa ere aukera ona izan daiteke ikasleek irakastean ikasteko. Batez ere, ikaskideen lanak ebaluatzen dituztenean, nola hobetu lantzen dutenean, zer alderdi diren egokiak pentsatzean edo zer alderdi aldatuko luketen galdetzean, horrek guztiak irakatsiz ikasteko aukerak ahalbidetzen dizkie.

Beraz, galdera hauze izango litzateke: ikasteko modurik egokiena irakatsiz ikastea al da? Ez beti, irakasten den moduaren arabera

izango litzateke galdera horren erantzuna. Eta zentzu horretan, irakatsiz ikastea ahalbidetzeko, komenigarria litzateke aztertzea nola antolatu daitekeen ikasketa-prozesu hori, irakasten duenak ere ikasi ahal izateko. Horrek elkarri eskaini diezaioketen laguntzaz baliatuta ikastea ere ahalbidetuko du, gure laguntza pedagogikotik ikastera mugatu beharrean, irakasleok ikasle askorekin lan egin behar izaten dugunez, gutxi pertsonalizatutakoa izan ohi baita gure laguntza.

Nola eraiki kideon arteko tutoretzak?

Kidekoen arteko tutoretzak irakatsiz ikasteko modu egokiak izan daitezke, beraz; baina nola eraiki ditzakegu? Normalean, bikoteak izan ohi dira, eta gaitasun handiagoa duen ikasle tutore batek gaitasun txikiagoko beste ikasle bati irakatsiz ikastea da ideia. Modu desberdinetara antola dezakegu kidekoen arteko tutoretza; baina, gure lantaldean, bi aldagai erabiltzen ditugu, aukera asko eskaintzen dituztelako. Bata, adin bereko ikasleen artekoa da, ikasgelan bertan maila berean nahikoa aniztasun badagoela bermatzen bada. Bestea, parekoen arteko tutoretza adin desberdineko ikasleen artean antolatzen da. Esate baterako, lan egiten dugun eskoletan, bosgarren mailako ikasleak hirugarren mailakoen tutore izaten dira, eta, modu honetan, hirugarren mailako ikasleek badakite bosgarren mailara iristen direnean tutore lana egitea egokituko zaiela. Horrela, adinen arteko desberdintasunak ere ahalbidetu dezake irakatsiz ikastea. Adin bereko ikasleak ditugunean, beste bi aldagairen artean hauta dezakegu. Batetik, tutorearen eta tutoratuaren rola berdina izatean datza, eta, normalean, hiruhileko oso batean garatzen da. Bestetik, gaitasun maila antzekoa dagoen kasuetan, tutorearen eta tutoratuaren rola truka ditzakegu, adibidez, hainbat saio eginez bata zein besteak. Aldatzen doan tutoretza eredu finkoa baino konplexuagoa izan ohi da, izan ere, tutore-lanetan ari den ikasleak bestearekiko diferentzia lortu beharko du, eta horrek aparteko ahalegina eskatuko dio, beste kasuan ere egin beharko dena; baina, kasu honetan, funtsezkoa izango da.

ARGITALPENAK



PEDAGOGOAK

Askoren artean

HIK HASI

Euskal Herriko ikastetxeetako eguneroko jardunean eragina duten 25 autoreren —pedagogoak, psikologoak, maisu-maistrak...— berri jasotzen da liburu honetan. Hezkuntzaren historian eragina izan duten eta uneotan ere ekarpenak egiten ari diren autoreen ideia nagusiak biltzen dira. Liburua Hik Hasi-ren webgunean eros daiteke.



SAGUEN BIDAIA

Oli-Natalia Colombo

PAMIELA

Etxeko saguak liburuaren ondoren, karraskari jator hauen abenturak hondartzara aldatzen dira, ondo-ondo pasatzen duten bitartean, eguraldiaz gozatzeko. Baina prestaketak ez ezik, ibilbidea bere horretan ere abentura eder-ederra da. Lau bertsoko estrofa, errima asonantea eta hitz kateatuak dituela, erritmo bizia du kontakizunak.



ALTXORRAREN BILA

Maialen Alfaro / Mayana Itoiz

ELKAR

Istoria bizitzak aukera emanen dio haurrari bere sententzioak entzuteko, tentsioak kanporatzeko, hatsa hartzen ikasteko... Igo autobusean eta etorri gurekin altxorraren bila, ea nolakoa izanen den! Maialen Alfaro sofrologoak idatzitako liburu imertsibo honek, lagundu diezaioke edonori bere gorputza entzuten.



'FAKE NEWS': EZ DIRA ATZO GOIZEKOAK

Fito Rodriguez

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ideiak saileko 11. liburua da honakoa eta ferri faltsuen fenomenoak -fake news, zurrumurruak eta esamesak— aztertzen du. Gezurraren erabilera politikan oso zaharra da, baina fake news hitza gaurkotasan handiko hitza eta gaia dira Rodriguezentzat, nahiz eta atzo goizekoak ez izan. Funtsean, kontrastatu gabeko berriez ari da egilea.




PIRATA AUSARTA

Ricardo Alcántara & Gusti

PAMIELA

Zer gertatzen da pirata basati bat itsasontziko masta nagusira igo eta, abentura betean ari dela, amak merientatzera joateko deitzen dionean? Ricardo Alcántarak eta Gustik osatzen duten tandem sortzaile honek egindako liburu honetan ageri-agerian gelditzen dira haur-irudimen neurrigabeak edozein objektu jolasgai eta gozagarri bihurtzeko duen ahalmena.



AITITA-AMAMEN GUDA ZIBILA

Askoren artean

EREIN

Mungiako Institutuko DBH 4. mailako ikasleekin egindako idazketa proiektuaren emaitza da liburu hau. Ikasleek Ramon Saizarbitoriaren 'Lili eta biok' eleberria irakurri zuten eta hortik abiatuta, aitita-amamekin izandako berriketetatik, guda eta gudaoste garaiko oroimena gogora ekartzeko aukera izan dute. Belaunaldien arteko tartea laburtuko dira, mugak lausotu.

PROPOSAMENA

Skoobi plataforma

Errealitate birtualaren bidez ikasten

Hezkuntza arlorako proposamen berri batekin datoz Educa Realitykoak. Errealitate birtualean oinarritzen den hezkuntza plataforma berri bat diseinatu dute. Skoobi izena jarri diote eta Eki metodologian oinarritutako 160 unitate didaktikok baino gehiagok osatzen dute. 10 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta dago eta dagoeneko egin dituzte zenbait froga hainbat ikastetxetan.



Gaur egungo haurrek, oro har, beraien egunerokoan teknologia gertu daukatela ezin uka. Teknologiaren erabilera hori, dena den, modu desberdinetara egin daiteke, baina gauza nabaria da teknologia berriek haurra erakartzeko dutela. Testuinguru horretan, hezkuntza plataforma digital bat sortu du Educa Reality enpresa gazteak. Errealitate areagotua eta errealitate birtuala hezkuntza arloan txertatze-

ko lanean ari da Educa Reality eta lau kidek osatzen dute: Iker Burguera da enpresako zuzendaria, Iñigo Frailek egiten du programazioa eta 3D teknikaren diseinua, Julen Garcia da 3D-ko animatzailea eta Miriam Uranga pedagogoa da.

Guztien artean diseinatu dute Skoobi plataforma eta errealitate birtualaren bidez ikasteko aukera eskaintzen die 10 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteei. Eki metodologian

oinarrituta, 160 unitate didaktikotik gora diseinatu dituzte, eta bi atal nagusi ditu plataforma digital honek: bisorea eta editorea. Bisorearen bidez, errealitate birtuala erabiltzen dute ikasgeletan lantzen diren gaiak modu ezberdin eta interaktibo batean ikusteko. Iker Burguera Educa Reality-ko zuzendariak azaltzen duenez, “errealitate birtualeko bertaurrekoekin mundu birtual batean sartuko dira ikasleak guk presta-

tutako hainbat unitate didaktiko lantzeko. Hezkuntza arlorako eta errealitate birtualean oinarrituriko Netflix bat izango litzateke, ikastetxeak biltegi digital moduan erabili ahal izango duena”. Plataformaren barneko bigarren atala, editorea da eta hau ikasleek sormena lantzeko eta teknologia berriekin jolasteko 3Dko erreminta bat izango litzateke. Editorean testua, irudiak, bideoak, galderak, 3D-ko objektuak eta hainbat elementu sartu eta errealitate birtualeko espazio ezberdinak sor ditzakete ikasle zein irakasleek.

Errealitate birtualeko esperientziaz gain, txantiloiak ere prestatu dituzte irakasle eta ikasleentzat eta ariketa desberdinak proposatzen dituzte modu horretan. Miriam Uranga enpresako pedagogoak azaltzen duenez, Heziberri 2020ko curriculumean oinarritu dira unitate didaktikoak garatzerako orduan. Horrekin batera, Gardner-en adimenen inguruko gida bat osatu dute. “Guk adimen guztiak landu ditzaten nahi dugu, eta horregatik, esperientzia birtualean lantzen direnez gain, txantiloietan proposatzen ditugun ariketekin adimen horiek osatzea izango litzateke helburua”.

Teknologia berrien erabilpen egokia

Educa Realityko kideek hurrek teknologia berriak modu egokian erabiltzea nahi dute: “Guk nahi duguna da teknologia erabili behar badute, modu on batean egin dezatela. Izan ere, ordenagailu eramangarri bat eskaini diezaiekegu ikasleei eta pentsatu digitalizazioa bermatzen ari garela. Baina kontuan izan behar dugu modu horretan, Youtubera sartu daitezkeela, Youtuberrak ikusten pasa denbora... Interneteko mundu zabal horretan informazio ona aurkitu dezakete, baina baita desegokia ere. Horregatik, guk plataformaren bidez sortu ditugun unitate guztiak badakigu curriculum bat jarraitzen dutela. Ikaslea aktiboa izango da esperientzia horretan, baina guk bideratutako plataforma baten barruan, eta guk proposatutako informazioaren barnean”.


Gamifikazioaren terminoa askotan aipatzen dute Educa Realitykoek

plataforma hau deskribatzerako orduan. Jolasaren bidez eta ikasketa modu dibertigarrian proposatzea izan dute helburu eta horretarako sortu dute Skoobi plataforma. Miriam Urangarentzat, “horixe da gaur egungo hezkuntzan dagoen arazotariko bat: irakasleek duten erronka handi bat da ikasleentzat zerbait erakargarri proposatzea digitalki hain estimulatu dauden haur eta gazteentzat. Gu ideia horri erantzuna ematen saiatu gara, motibaziorik gabe oso zaila delako ikastea”.

Plataforma hau, bai ikasle zein irakasleentzako baliagarria dela uste dute eta EAEko ikasle guztiak erabiltzeko, Eusko Jaurlaritzarekin zein Ikastolen Elkartearekin elkarlan dinamika bat adostea da beraien asmoa. “Eusko Jaurlaritza hezkuntza arloan teknologia berriak txertatzeko urratsak egiten ari da eta norabide horretan beraiekin elkarlan bat abiatzea da guretzat biderik aproposena. Hortik abiatuta, ikastetxeekin osatzen ari garen sarea zabaltzea izango litzakete gure asmoa. Skoobi plataforma euskaraz, gazteleraz eta ingelesez eskainiko dugu”.

Errealitate aregotuko liburuak

Errealitate birtuala ez da, hala ere, Educa Realitykoek lantzen duten teknologia bakarra. Errealitate aregotuan oinarrituta hainbat liburu ere egin dituzte, 3 urtetik gorako haurrei zuzendutako Arbi liburu interaktibo bidez, haur txikiei ere teknologiak modu egoki eta dibertigarrian erakustea nahi dute.




Educa Reality

Harremanetarako

- Iker Burguera
- Telefonoa: 647 07 80 56
- E-posta: iker.burguera@educareality.com
- Webgunea: www.educareality.com
www.arbibook.com

Hezkuntza arlorako eskaintza:

- Skoobi plataforma digitala (errealitate birtuala)
- Arbi liburu interaktiboak (errealitatea areagotua)



ATZEKO ATETIK



ZERGATIK EZ KANTUAN?

PANTXIX BIDART MUSIKARIA

Duela gutti erakasle batek erran zidan: “Nik ez dut kantatzen klasean, ez dakit kantuz eta!”. Hortan gelditu ginen eta ez nion gogoan nuena esan eta hemengo paradaz baliatzen naiz ene gogoetaren bururat eramaiteko.

Kantua klasetik baztertzeo “Ez dakit kantatzen” hori ardura entzun izan dut. Eta aldi guziz nago: “Bainan margotzen ba al dakizu?”. Alta, margoketetan eramaiten dituzte erakasleek klase osoak, lotsa eta beldur izpirik gabe. “Eta matematiketan ez zira Einstenen heienan ere!”. Alta kalkuluetatik geometriarat, erakasle guziek (ene ustez) behar baino matematika gehiago erakusten diezue gure haurrei.

Zergatik beraz musikarekilako lotsa hori? Jakitate eskasa ala interes eskasa? Ez dut sinetsi nahi bigarren aukera denik. Alabainan, kantua da sentsualitatearekiko lehen harremana. Amaren sabeletik soinuen entzuten hasten da umea eta tripatik atera ondoan, amaren bularraren kontra entzun duen lehen bibrazioa amaren ahotsarena da. Zonbat burasok

eta familiakok ez ote dugu haurra besoetan kantuz lokartu. Eta egun beharko ginuke sentsualitatearekiko lehen kate hori moztu kantuz ez dakigulako? Ez dea burasoen bainan ere erakasleen helburua lehen harreman sentsual horren mantentzea eta sendotzea?

Margoarekin koloreak, erliebeak, edertasuna, konzentrazioa, lasaitasuna eta beste hainbat nozio hurbiltzen dituen bezala, haurrak musikarekin beste hainbeste deskubritzen ditu: adi egoten ikastea, besteen entzuten ikastea, soinuak desberdintzen ikastea, entzumen aktibo eta kritiko baten ukaitea, lasaitzea, sentimenduak ozenki adieraztea, besteekin eta besteen aurrean egoitea eta gauzak adieraztea...

Hori dena eta gehiago kendu behar ote diogu haurrari guhaurek kantuz (ustez) ez dakigulako?

Eta kantuz ez dakienak ere aterabideak baditu. Joan den urtean Nafarroako Hezkuntza sailak eta Dijitaldeak programa bat abiatu zuten musikariak heien lanaren aurkezterat ikastetxeetatik joaiteko eta euskal kantuaren historiako zonbat

oinarriren oroitarazteko. Konturatu baitziren, kantatzeaz gain, oraiko gazteak kantagintzatik, hau da, gure ekosistemako elementu garrantzitsuenetariko batetik urrun bizi zirela. “Nor? Mikel Laboa? Zoin taldekoa da? Erreal ala Athleticetako?” Heien berkonektatzeko, heien mundurat jo behar eta erakutsi genien nola Euskal Herriak ere bere musika ataria zuen, Badok izenekoa, eta nola azken 60 urte hauetako euskal kantagintzaren gehiena atari hortan aurki lezaketen, klikatuz.

Beste aterabide bat litaike kantua programetan sartzea matematikak eta geografia bezalaxe. Kantuarekin gure ekosistema barnagotik deskubritzen baita, gure bertsolariak, gure poetak, iraganeko bizi moldea, garai bakoetako kezak eta aldarrikapenak, erran molde poetikoak, erran zaharrak... Horretarako, bistan da, erakasleendako ikastaro bat plantan ezarri beharko litaike, bakoetako oinarri batzu jakin ditzan eta talde bat kantan jartzen behar diren bizpahiru giltzak eskura ditzan.

Gure hitzak ez daitezela ahaztu ez daitezela gal...

IRRIEN TO LASUNAK

EGIN HARPIDETZA!

ETA JASO ELKAR DENDETAN
ERABILTZEKO 10€-KO BONOIA!

Bonoiaren erabilera: 10€-ko bonoia erabiltzeko 10€-ko bonoia erabiltzeko.

URTEAN
49€



HARPIDETZA DUTENOK ADIERAZI.

Erabiltzeko: 10€-ko bonoia erabiltzeko erabiltzeko.

Erabiltzeko: Harpidetza adierazteko erabiltzeko.

www.irrien-lasunak.com/harpidetza in irrien-lasunak

Euskal Herrian erreferente diren
PEDAGOGOen liburua

SALGAI

Euskal Herrian erreferente diren **PEDAGOGOAK**

PEDAGOGOAK

Informazioa eta erosketa www.hikhasi.eus helbidean